

GUaixe.net



**Mariñelarena
Alemanian,
mundialean**

Kirola >> 13



**Asteartean Iturmendiko Karmengo
Amako festak hasiko dira.
Asteazkenean, berriz, Irurtzunen
festen etxajua lehertuko da**

Sakana >> 8



**Etxarriko
abesbatza
bigarren San
Vicenten**

>>> 15

**Arbizuko
aurrekontuak
onartuta**

>>> 7

**Asteazkenean
Udako
ikastaroak**

>>> 7

**Hautzaroko
tratu onaren
sustapena
Burundan**

>>> 5



Gizona hondakin organikoen baldea zintzilikarioan jartzen.

Birziklatzearen aro berria hemen da

>>> 9

**Inasako inbertitzaileak
herenegun aurkeztu
zuen proposamena**

>>> 10

**Lazaro Echeverriako
aldeak astelehenean
berriro bilduko dira**

>>> 8



**Arkeologoen orain
arteko kanpaina
handiena Zamartzen**

>>> 3



**Inoiz baino
gazte gehiago
futbol
campusean**

>>> 14



**Mauduiten film
laburra gaur
Argentinan
lehian**

>>> 15



**GAN-eko langile
sakandarrak
kaleratzeko
zerrendan**

>>> 10

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.



Jarraitu
gaitzazu

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzaileak • Alumninoa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), **Altsasu**
Telf.: **948 468 559**
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



June

ZORIONAK June guapi-sima!! 12 urte dagoeneko!! Nola pasatzen den denbora!! Muxu asko etxeko guztion partez.



Ibon

ONGI ETORRI IBON!
Beñat, Eider eta familia guztiaren partetik.



Erku

ZORIONAK amatxo! Urtez urte forma hobe hartzen ari zara. Heldu den urtean ezin izanen zaitugu harri-patu belarrietatik tira egiteko. Lau musu. Jon, Julene, Osane eta aitatxo.



Jon

ZORIONAK gure etxeko printzeari. Ederki pasa genuen zure urtebetetzean Sanferminetan Caravina-grerekin. Besarkada bat. Julene, Osane, Amatzxo eta Aitatxo.



Maider eta Aita

ZORIONAK Maider eta aita. Beti oroituko zaitugu irrifartsu poxolita.



Alain Santano Malo

ZORIONAK!! Hiru hilabete!! Aitaren eta amaren partez.



Malen Aldaz Cid

Osaba Iñigo eta Jonen partez, ZORIONAK zure 4. urtebetetzean!!



Malen Aldaz Cid

ZORIONAK Manolita!! Izeba Zuri eta abuela Mariaren partez. On-do pasa.



Malen Aldaz Cid

ZORIONAK eta muxu asko amaren partez!!

Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

Erredakzioaren oharra



Agorrileko oporren aurretik argitaratuko dugun azken zenbakia hilaren 26koa da.

garilak

12-18

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Mendi irteera

Erkuden. Garilaren 14an, domekan, Altsasuko Mendigoizaleak taldearen egoitzatik.

Erakusketak

Altzariak. Garilaren 14ra arte Urdiaingo Kaluxa tabernan. **Gorka Flores Bengoetxea.**

Natura eta Argitasuna. Agorriaren 30era arte Lizarrustiko parketxean. Pintoreak eta eskultoreak: Grace Robert, Cao, Maria Alice eta Eduardo.

Hitzaldiak

Paisaiaren arkeologia, bere kontzeptu lokala eta globala. Garilaren 12an, ostiralean, 19:30ean Uharte Arakilgo Zamartze aterpean. **Hizlaria: David Griffiths, Oxfordeko Unibertsitateko irakaslea. Ingelese.**

Britainiako hego-mendebaldeko aurre-historia. Garilaren 13an,

larunbatean, 12:30ean, Uharte Arakilgo Zamartze aterpean. **Hizlaria: Olaf Bayer, Oxfordeko Unibertsitateko irakaslea. Ingelese.**

Zinema

Lo imposible. Garilaren 16an, asteartean, 22:00etan Irurtzungo Foru plazan.

Aita zontzia naiz. Garilaren 18an, ostegunean, 22:00etan Etxarri Aranazko ikastolako patioan.

Tailerrak

Batukada. Garilaren 16an, asteartean, 19:00etatik 20:30era Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Nekazaritza ekologikorako talde-prozesuen dinamizazioa eta kohesioa. Garilaren 17an, asteazkenean, 16:00etatik 20:00etara Altsasun. **Sakantzen Sarea.**

Kontabilitate eta fiskalitate prestakuntza hasiberriendako.

Garilaren 18an, ostegunean, 10:00etatik 13:00etara eta 5:00etatik 18:00etara Lakuntzan. **Sakantzen Sarea.**

Bestelakoak

Ur Festa Goxoa. Garilaren 17an, asteazkenean, 20:00etatik aurrera Uharte Arakilgo igerilekuan.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garilaren 12an, ostiralean, 20:00etan Irurtzungo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarriko plazetan.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garilaren 14an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Garilaren 15ean, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

>> Altsasu

Hitzordua Erku-dengo ermitan

Domekan, 9:30ean, Erkudengo amaren irudia aldean dutela, makina bat altsasuar elizatik abiatuta erromerian haren ermitara joanen dira. 11:00etan meza izanenda ermitan eta akaberan Ama Birjina Erkudengoa abestia kantatuko da. Ondoren udalak banatutako ardorik, gosaririk eta dantza saiorik ez da faltako. Hala des-pedituko da urteroko hitzordua. Hilaren 2an hasi zen Erkudengo Amaren bederatzi hurrena Altsasuko elizan izan da. Hura despeditu ondorengo domekan egiten da erromesaldia.



beleixe **online**
edo uhinbak aplikazioaren bitartez www.guaixe.net

Ostiralero 9:30etik 10:30era **SAIOA**

Asteburuko agenda

Asteko errepasoa: albisteak, kirolak, arkeologoak Zamartzen, lan gatazkak...

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

Piztu irratia!

ezkaatza >>

>> Uharte Arakil

Nazioarteko arkeologoak Zamartzen bueltan dira

Garila hasieratik lastaila akabera arte, lau hilabetez, Erdi Aroko hilerrian eta erromatarren masioan lan egingen dute

Aditu Arkeologia Zerbitzuak antolatuta, laugarren urtez jarraian Zamartze monasterioaren inguruan arkeologi indusketak egingen da (2010ekoa prestaketa zundaketa izan zen). Berriro ere Fran Valle de Tarazaga izanen da indusketako eta ikerketako zuzendaria. Erromatarren garaiaz ere arduratuko da. Aldamenean, Emma Bonthorne (osteoarkeologoa) izanen du, Erdi Aroko hilerriaz arduratuko dena.

Asmo handiko indusketa kanpaina da aurtengoa. Amerikako Estatu Batuak, Kanada, Britainia Handia, Irlanda, Australia, Eslovakia eta bertako 45 ikasle eta arkeologok parte hartuko dute indusketan. Estreinakoz, Nafarroako Unibertsitateko historia eta arkeologia ikasleek ere parte hartuko dute indusketan. Baita boluntarioek ere, jakina.

Egitekoak

Santutegiaren sorrerari buruzko informazio gehiago lortzea espero du aurtien Valle de Tarazagako. Eta erromatarretatik Erdi Aroko trantsizioa nola izan zen jakiteko lorratz gehiago ere. Horregatik, Erdi Aroko hilerriaren ikerketa eremua zabaldu beharrean, arkeologiek lurperatze mailetan behera egin dute. Aurtien hilobi zaharrenak azalerazi nahi dituzte. Masio erromatarra joan zen urtean opatutako mailetan garbiketara besterik ez zuten egin eta aurtien eremu horretan ere indusketan sakonduko dute.

Boluntarioak

Ongietorriak izanen dira aztarnategian, bereziki sakandarrak. Horretarako info@aditu.info helbidera idatzi behar da.

2012ko fruituak

Zamartzeko hilerriko gorpuen profil biologikoa zehazteko hezurdura kopuru nabarmenak behar dituzte eta Valle de Tarazagako azaldu digunez, joan zen urtean 50 bat hezurdura oso berreskuratut zituzten, aurrekoetan baino gehiago. Haien artean Donejakue bideko erromes bat arrije osoarekin: pordoia eta zulatutako bi maskor. Haren hilobia ere berezia zela aipatu digu arkeologoak, hareharritz eta morteroz egina zegoelako. Britainia Handitik etorritako teknikariak ikerketa kimikorako eta erradio karbonokorako laginak aterako dituzte hezurduretatik. “Zamartzen hilobiratutako enjatorria, dieta eta kronologia ezagutuko ditugu”, azaldu digu arkeologoak.

Monasterioko baratzean, erromatarren aztarnak bi mailetan opatu dituzte. “Erromatar-aztarnategia uste genuena baino handiagoa da. Gainera, bietan suntsiketa garrantzitsuren arrastoak izan daitezkeenak daude: III. mendekoa, eta bestea 332 urte ingurukoa. Bestalde, inguru hartan merovingioen garaian (VI. mendean) jarduera bazegoela ziurtatzen duen txanpon bat ere opatu zuten.

Joan den urtean material ugari berreskuratut zuten. Aztarnategitik ateratako objektu asko



Joan den urtean, alde egitean estaltzeko botatako lurra kendu eta lanean hasi dira berriro arkeologoak. UTZITAKOA

Bisita gidatuak

Larunbatetan 11:00etan egingen dira aztarnategirako bisita gidatuak. Larunbatean ezin duenak, astelehenetik larunbatera 8:30etik 17:30era pasa daiteke Zamartzetik. Talde bisitak direnean (kolektiboak, ikastetxeak eta abar) info@aditu.info eta posta helbidera idatzi behar da.

Hitzaldiak

Aztarnategiarekin zerikusia ez duten arkeologiari buruzko hiru hitzaldi antolatu dituzte Adituko kideek hilabete honetarako Zamartzen. Gaur, 19:30ean, Oxfordeko Unibertsitateko David Griffiths irakasleak paisaiaren arkeologia, haren kontzeptu lokal eta globalaz hitz egingo du. Bihar, 12:30ean, unibertsitate bereko Olaf Bayer ikerlaria Britainia hego-mendebaldeko aurre-historiaz ariko da. Azkenik, hilaren 27an, 12:30ean, Cardiffko Unibertsitateko Seren Griffiths ikerlariak erradiokarbono bidezko datazioen inguruko azken berriak azalduko ditu. Hitzaldi guztiak ingelesez izanen dira.

monasterioan jartzea aurreikusten den museo edo erakusketa permanentean ikusgai izanen dira.

“Ikerketak ematen duenaz gain, museoa duen arkeologia-aztarnategia izateak bisitariak erakarri-

ko ditu eta, neurri batean, eskualdea dinamizatzeko balioko du”, gaineratu du Valle de Tarazagako.

SAKANA

Hilaren akabera arte eska dezakete laguntza euskara ikasleek

UEUko ikasleen kasuan epea irailaren 30ean despedituko da

Aurreko ikasturtean euskalduntzen edo alfabetatzen aritu diren sakandarrak Mank-en Euskara Zerbitzuaren diru-laguntza jasotzeko aukera dute. Edozein ikastarotako matrikula da lagunduko dena (%80tik gorako asistentziarekin), ez kilometrajea.

Eskabideak egiteko epea hilaren akaberan despedituko da. Eskatzaileek eskabide ofiziala betetzearekin batera, haien nortasun agiriaren kopia, erroldatze ziurtagiria, euskaltegiaren asistentzia agiria, matrikularen ziurtagiria eta langabeen kasuan Gizarte Segurantzaz-

ren bizitza laborala agiria aurkeztu beharko dituzte.

UEU

Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) udako ikastaroetan izena ematen duten sakandarrak diru-laguntza jasotzeko aukera izanen dute. Mank-eko Euskara Zerbitzuak matrikula, egoitza (ikasle eta langabetuendako) eta kilometraje (ikasle eta langabetuendako) gastuak arindu nahi ditu horrela. Irailaren 31ra arteko epea izanen da eskaerak egiteko. Aurreko deialdian eskatutako agiriez gain, kilometraje agiria gehitu beharko zaio.

Irailaren 17a
baino lehen bidali

Udako G
argazki lehiaketa

FLORES
arkitektura



948 563 317
arkiflores@gmail.com
Iortia plaza 1-1
ALTSASU
www.arquitecturajavierflores.com

>> Saria:

KATE informatikak
eskainitako **webcam-a,**
mikrofonoa eta aurikularrak



ADI, oinarri berriak:

Argazki digitalak bakarrik onartuko dira eta gutxienez 1.800x1.200 pixel, eta jpg formatua izatea. **Argazkiak Sakanan hartutakoak izan beharko dira.** Argazkilari bakoitzak gehienez argazki bat aurkeztu dezake eta ondoko datuak jarri beharko dira: egilearen izena-abizenak, telefonoa, e-posta eta argazkia non hartu den. Bierrik Fundazioak beretako gordetzen du jasotako lanak publikatzeko eskubidea. Lehiaketa honetako parte-hartzaileak, bidalitako lanaren jabe den neurrian, lanak erabiltzen, jendaurrean erreproduzitzen eta jakinarazten uzten dio Bierrik Fundazioari, euskarri inprimatuan, Interneten edo ezagutzen den beste edozein modutan. Lanak irailaren 17a baino lehen aurkeztu beharko dira maketazioa@guaixe.net helbidean. Argazkiak www.guaixe.net webgunean jarriko dira ikusgai.



Raf Atxuri

astekoa

Rolihlahla Mandela

Nahi baino gehiagotan amorratzen naiz ikusirik kultur inperialismoak nolako bidea egiten duen gure egunerokoan, zergatik nagusitu diren nonahi inperioen izenak eta Everest bezalako toponimoek Txomolungma bezalakoak baztertu dituzten. Gizakien izenekin orobat gertatu da eta munduko hainbat naziotako biztanleei menperatzaileen izen-deiturakezarri diz-

kiete. Maiz oroitzen naiz Cassius Clay boxeolari matxinoarekin, hura ere ez zen nire ustez oso fin ibili eta bere arbasoen kulturaren izendapena edo aukeratzeko beste menperatzaile batzuen hartu zuen: Mohammed Ali. Zazpi urte urte zituela, eskolako lehen egunean Nelson izena eman zioten Rolihlahla Dalibungozenari eta hala dirau egun ere.

Hegoafrikan halako izendatze sistema bikoitza dute beltzei dagokienean, izen bat etniakideen artean baliatzeko, eta beste bat europarra kontu ofizialetarako. Izenak izen, Mandelaren ospe eta itzalak etniak, kontinenteak eta mendeak zeharkatu ditu. Garai eta kokagune latz bezain zoragarriak suertatu zitzaizkion Rolihlahla gazteari. Haren lei-

nua sistema tribala itogarria zitzaion, haren herrialdean bos-tetik lau azalarengatik baztertuak ziren, haren gazte garaian mundu gerra suntsigarria eta ondoren isilpeko gerra hotz bat. Gandhiren bakezko borroka-bideari lotu zen lehenik, burdinen jardunbideari gero Umkhonto we Sizwe-n, espetxearen aro luzean apartheidaren puskatzaile eta herri gidaritzan, eta

lehen zahartzaroan Hegoafrikan estatuburu. Lantegia ez zuen inoiz samurra izan baina leinu beltzak batzen, afrikanerrek harremanak ehuntzen, berdintasunezko herrialde berri bat altxatzen dena eman zuen. Duintasun eta askatasunaren bide urratzaile paregabea eman ziguten Hegoafrikak eta XX. mendeak: Rolihlahla Mandela.

barrutik kanpora Urteko balioztatzea

Hau izango denez urte honetan idatzi ditugun artikuluen arteko azkena, urteko laburpen txiki bat egin nahiko genuke. Aurten gauzak asko aldatu dira zentzu guztietan. Alde batetik, gure zonaldea jasaten ari den egoera sozioekonomikoagatik laguntza jasotzen dutenen kopurua handitu egin da. Horren ondorioz elikagaiak bidaltzen dizkiguten administratitzek eskakizun maila asko igo dute. Administraritza hauek ikuskapenak egiten dizkiete plan honetan parte hartzen

duten erakundeei, alde batetik Nafar Gobernuak egiten ditu ikuskapen hauek eta beste alde-tik Bruselatik etorritako mandatariek. Ikuskapen hauekin bi administratitzetako baten bati iruditzen bazaio erakunderen batek ez dituela baldintza guztiak betetzen, orduan elikagai laguntza kentzen diote. Hau dela eta, geroz ta gehiago dira eskatutako agiriak, bai gu bezalako erakundeei eskatzen dizkietenak bai guk laguntza hauei etekina at-
era nahi dietenei eskatu behar

dizkiegunak. Beste aldetik, Europatik bidaltzen zuten elikagai laguntza murriztu egin dute, horrexegatik eta Europako murrizketa honi aurre egiteko Elikagai Bankuak urtean zehar bi kanpaina berezi antolatu ditu elikagaiak biltzeko. Kanpaina hauek Nafarroa osoan egin dira eta esan behar dugu Altsasun oso harrera ona izan dutela, lehenengoan 3000 kilo inguru elikagai jaso ziren eta bigarrean 6000 kilo inguru. Caritas

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egiten dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

Sexuari buruz

Ixabel Artieda Artieda

Pertsona sexuatuak garela kontuan hartuta, esan, nola ez, edozein gauzetan bezala, zalantzak sortzen direla eta zabalera ez dela txantxetako.

Gozamena da lehenengoa. Gure barruari begiratzea ezinbestekoa da, pertsonen harremana edo... baita maitasuna ere, espontaneitatea izatea askotan, eta izanda, baliatzea. Gure emozioak, gure goxotasuna, babesa, eskaini eta jasotakoa,

baita egun hotzetan dastatzeko berotasuna ere: sexuaren barruan daude edo bereizi behar dira? Zientzilariek diote sexua buruan kokatuta dagoela, eta komeniko litzateke, nire ustean, barruak eskaintzen duen aberastasun guztia bizitzea.

objektibo tik



Atsedena eta estresa: Mendi buelta egin ondoren atseden hartu eta indarrak biltzeko toki aparta izan daiteke Urbasako kanpina. Herenegun zabaltzeko beltz lan egin behar izan zuten arduradunek.

objektibo tik: gutunak@guaixe.net

gora/behera

Euskarazko telebista
Xaloe Telebista, ikusteko aukera izanen dugu Sakanan.

Nafarroako Gobernua
Bitartean ETB digitalean ikusteko aukerarik gabe segitzen dugu.

Guaixe

ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net
GUAIXE: Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU • 948 564 275 • 948 562 107 • guaixe@guaixe.net
PUBLIZITATEA: Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net • Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net • 948 564 275

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa
Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa
Maketazioa: Ainhoa Etxeberria Pikabea
Laguntzaileak: Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz Barroso
Zuzentzailea: Oihana Zubeldia
Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200 ale

LAGUNTZAILEAK:



SAKANA

Guaixeren webgunea gero eta bisitatuagoa

Aurreko hilean 39.743 bisita izan zituen

Internet bidez Sakanako informazioa zabaltzeko Bierrik fundazioak duen webguneak, www.guaixe.net-ek garagarzaroan 39.743 bisitari izan zituen, hau da, eguneko 1.325 bisitari. Hiletik hileraz gero eta gehiago dira ibarrek informazioa web atariaren

bidez jasotzen dutenak. Ilbeltzarekin alderatuta 12.000 bisitari gehiago dira.

Sakanako albistari digitalak sare sozialetan ere gero eta jarraitzaile gehiago ditu. Bierrik fundazioaren Facebook profilak (www.facebook.com/bierrik.fundazioa) 1.125 lagun ditu. Albistez gain, lehiaketa eta publizitate

oharrak zabaltzen ditu. @guaixe Twitter kontuan, bestalde, 716 jarraitzaile ditu. Twitterreko euskarazko jarduna jarraitzen du www.umap.eu-k. 4.625 twiterlari aktibo daude gauegun sare horretan eta rankingaren 155. postuan dago @guaixe. @beleixeirratia, berriz, 933. Sakanako irrati euskaldunak 248 jarraitzaile ditu Twi-

Bisitak	
Hilabetea	Bisita kopurua
Ilbeltza	27.410
Otsaila	23.456
Martxoa	27.588
Apirila	26.123
Maiatza	32.639
Garagarzaroa	39.743

terren. Sare sozial batean eta beste gero eta gehiago dira elkarrekintzak.



Guaixe.net-en bisitak gora doaz.

>> Altsasu / Olatzagutia / Ziordia



Talde osatzen duten langileak batzarreko une batean. UTZITAKOAK

Haurtzaro betaurrekoak dituzten profesionalak

Haurtzaroko tratu onaren sustapen taldea sortu dute adin txikikoekin harremana duten profesionalak

“Tratu onak erlazioatzeko era berezi bat da, beste pertsonaren duintasuna baloratzen den harreman mota bat, bestea kontuan hartzen duena eta besteen beharrik enpatiaz ulertzea”. Hala azaldu digu Ainhoa Iparragirrek. Burunda Mendebaldeko Gizarte Zerbitzuetako langileak azaldu digu eskualdean adin txikikoekin lan egin eta erlazioa duten profesionalak sare bat osatu dutela: “modu ezberdin batean erlazioatzen ikasi behar dugulako. Arazoak era egokian konpontzen ikasi. Sarean lan eginez gero, leku guztietatik garrantzia emango zaio, eta mezu berdina jasoko dute adin txikikoek eta gizarte osoak”.

Sareko kideen iritziz, “gizarte osoa gara haurren ongizatearen arduradun, ez bakarrik guraso edo tutoreak”. Sarea osatzearen ondorioz, Burunda mendebaldeko profesional guztiek lan metodologia jakin bat jarraitu dute, elkarlanean. Iparragirrek azaldu digunez, sarearen egitekoak dira: “batetik, arrisku egoeran dauden haur eta familiekin lan egitea eta kasu zehatzetan partehartzea. Eta,

bestetik, prebentzio eta promozio ekintzak sustatzea”.

Zergatia eta prestakuntza

Burunda mendebaldeko Gizarte Zerbitzuen mankomunitateak 2011ko garilean familia programa jarri zuen martxan. Han jasoa zegoen sarearen beharra eta sarea sortzeko hezkuntza, osasun arloko eta gizarte zerbitzuko teknikariak elkartu ziren, aurretik zuten koordinazioa elkarlana bihurtu da egitasmoa aurrera eramateko. Aurreneko bileraren ondoren, sarea haur eta nerabeekin lan egiten duten beste arlo batzuetara zabandu zuten.

Joan den urteko maiatzean, sarea martxan jartzeko, Burlatako tratu onen sustapen sareko teknikariek prestakuntza saioak jaso eta sarea eratu zen. Ordutik prestakuntzan eta irizpideak bateratzean sakondu dute sareko kideek (urteko saio bat aurreikusten dute) eta pixkanaka praktikan jartzen ari dira, esaterako: Altsasuko Udan Euskaraz programako begiraleei tratu onei buruzko saio bat eman zitzaientzen; aisialdiko begiraleei zuzendutako prestakuntza saioa...

Sarea martxan jartzearen ondorioz, profesionalen artean gaiare-

kiko “sentsibiltate gehiago dago. Profesionalen arteko harremana biziagoa da, informazio gehiago jasotzen dugu alde guztietatik”. Talde bultzatzailea asanbladan hartutako erabakiak aurrera eramateko lan egiten ari da.

Sareko kideak

Zelandi ikastetxe publikoa, Domingo Bados ikastetxe publikoa, Iñigo Aritza ikastola, Sagrado Corazón ikastetxea, Txioka haur ikastola, Txirimbulo haur eskola, Altsasuko kirol teknikaria, Altsasuko berdintasun teknikaria, Altsasuko gazte teknikaria, Altsasuko ludotekako arduraduna, Olatzagutiko kultur teknikaria, Altsasu, Olatzagutiko eta Ziordiako liburutainak, inmigrazio teknikaria, Emakumearen arreta zentroko hezitzailea, Altsasuko udaltzainak, Osasun Zentroa eta Gizarte Zerbitzuak.

Antolakuntza

Hiru maila daude. Asanblada sarean dauden profesional guztiek osatzen dute. Talde bultzatzailea asanbladan hartzen diren erabakiak aurrera eramaten dituen taldea da. Kasuko taldean kasu jakin batean parte hartzen duten profesionalak egonen dira.

Xaloea Telebista Nafarroa guztira

Oronoz-Mugairitik Baztan, Bertizana eta Malerrekarako emititzen duen euskarazko telebista, Xaloea Telebistak, Nafarroa guztian emititzeko lizentzia jasodu. Beraz, Lurreko Telebista Digital (LTD) bidez Nafarroan euskaraz sortutako telebista ikusteko aukera izanen da.

Nafarroako Gobernuak ostira-lean jakinarazi zuenez, Canal 4 eta



Xaloakoak feministei galdezka.

Popular TV-k hutsik utzitako herrialdeko kanalak Xaloak eta Abian komunikazioa SL operadoreek eskuratu dituzte. Bi horiek Hamaika Telebista Hedatzeko Taldea SA-rekin batera Iruñerrirako lizentzia ere eskuratu dute.

SAKANAKO
UDA
IKASTAROAK
 Uztailak 17-30
SAKAN
IZEN

BAT
 Uztailak 17
 Altsasu, 16:00-20:00
NEKAZARITZA EKOLOGIKORAKO TALDE-PROZESUEN DINAMIZAZIOA ETA KOHESIOA
 Irakaslea: Ainhoa Iparraguirre

BI
 Uztailak 18
 Lakuntza, 10:00-13:00 / 15:00-18:00
KONTABILITATE ETA FISKALITATE FORMAKUNTZA IKASTAROA HASIBERRIENTZAT
 Irakaslea: Sakanako Kudeaketa

HIRU
 Uztailak 23
 Lakuntza, 10:00-14:00 / 15:30-19:30
TURISMO AKTIBOA. LEGEDIA ETA KUDEAKETA
 Irakaslea: Ainhoa Iparraguirre

LAU
 Uztailak 29 - 30
 Lakuntza, 10:00-14:00
INKUBATEGI KOOPERATIBOA. JARDUERA EKONOMIKO BERRIAK MERKATURA ATERATZEN LAGUNTZEKO EGITURA
 Irakaslea: Ainhoa Iparraguirre

Ikastaro hauetan izen-ematea sakantzensarea@gmail.com helbidera idatziz eta **690 036 879** telefonora deituz egin daiteke.

>> Olatzagutia

Bilduk inboluzioa ikusi du alkatea ikertzean

GAL-ek hildako Angel Gurmino Lizarragaren argazkia udaleko bilkura gelan izategatik Espainiako Auzitegi Nazionala Gurutze Rodríguez alkatea ikertzen hasida. Eta egintza horretan Bilduk “ego- era politiko berrira ezin egokitu

daiteke eta espainiar estatuak inboluzioan ematen ariden urrats bat gehiago” ikusi zuen.

Ostiralean, Rodríguezekin batera prentsa agerraldian aurretik auzitegi berak ikertu dituen koalizioako Leitzako Oier Eizmendi,

Atarrabiako Peio Gastearena eta Altsasuko Garazi Urrestarazu alkateak eta Maiorga Ramirez parlamentaria izan ziren. Azken hiru alkate horien kontra epaitegiak ez zuen inolako neurririk hartu. Baina “edozein aitzakia

ona da Bilduko alkateen kontra egiteko”.

Prentsaurrekoan izan ziren Bilduko kideen ustez auzitegi ikerketa horren atzean “asmo politiko nabaria” dago. “Hondoko ezta baida saihestu nahi dute. Bere

horretan irau nahi dute eszena-toki berriari ez heltzeko eta politika normalizaziorantz irmo eta eraginkor aurrera egiteko”. Koalizioa hautetsiek gaztigatu zute-nez “iraganeko errezetek ez zute-la aurre egiteko balio”.

>> Bakaiku



Bakaikuarrek elizan grabatu zuten flashmob-aren doinuko kantua. UTZITAKOA

Errausketaren kontrako flashmob-ak badu kantua

Sakandarrak entseguetan parte hartzera gonbidatu dituzte bakaikuarrek

Pertsona talde handi bat toki publiko batean doinu bat dantzatzeko jarrean dantza flashmob-a. Bakaikun festen egitarauaren barruan hilaren 27an, larunbatean, 20:00etan plazan, “gure osasunaren alde eta errausketaren aurkako” flashmob-

a egingen dute.

Dagoeneko badute kantua. Garagarriaren 28an 23 herritar bildu ziren elizan eta Osane Leizaren zuzendaritzapean kantatu zuten. Haien ahotsak Jon Jimenezek jaso zituen. Hitza aldatuta, flashmob-aren doinua Lady Gagaren kantu ezagun baten moldaketa izanen da. Koreografiak

Entseguak 19:30ean

Astelehenetan eta asteazkene-tan Maldai espilan eta ostirale-tan eta larunbatetan Angoiko iturrian, San Juan plazan.

Amaia Fuste, Laida Etxeberria eta June Kintana arduratu dira. Astelehenean grabatu zuten bideo tutoriala eta www.errausketariekflashmob.wordpress.com-en dago ikusgai.

SAKANA

Nafarroako Gazte Plana zuzentzeko eskatu dute teknikariek

Nafarroako Parlamentuak berriki aho batez onartu du Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak aurkeztutako Gazteria Plana. Nafarroako Gazteriaren Zerbitzuetako profesionalak, tartean Altsasuko Blanki Torresek, ez dute egokitzen jo plana. Zergatia eman gabe Nafarroako Gazteriaren Institutua desagertzen dela salatu dute teknikariek. Erakunde independentea izan beharrean kirol alorreko zuzendari-detza bat bihurtzean “kuantitatiboki eta kualitatiboki pisua” galdu zuen.

Teknikariek salatu dutenez, Nafarroako Gazteriaren Plana “sortzailetasun gutxiak, zorrotasunik gabea eta bat-batean egin iruditzen zaigu, eta, gainera,

ez dago koordinatuta gazteriaren zuzendariordetzarekin, behar den bezala”. Aurrekonturik ezean, Torresek eta gainerakoek galde-tu dute zer diru eta langile baliatuko dituzten Gazteriaren Plana garatzeko.

Gaineratu dutenez, Udalek jardura, ekipamendu eta langileen dako jasotzen zuten diru-laguntza guztiak desagertu dira. Aurretik murrizketak egin direla eta Gazteriaren Udal Zerbitzuen jarraipena zalantzan gelditu daitekeela nabarmendu dute. Gazteriarako politika globalik ez dagoela ere salatu dute teknikariek eta gogorazi dute krisiak gazteak gogor jo dituela: “langabezia, hezkuntza erreforma eta zerbitzu eta baliabide eza pairatu behar dituzte”.

>> Altsasu

Berdintasuna islatzeko irudi bila

Festetako programan argitaratu-ko den *Jaietan eta urte osoan, BERDINTASUNA* kanpainako irudia bilatzeko lehiaketa antolatu du Altsasuko Udalak. Festetan gertatzen diren genero ezberdintasunen inguruan altsasuarrak jabearaziko dituen irudia nahi du udalak. Bimezu zabaldunahi ditu udalak: etxeko lanen eta familiako kideen zainketan erantzunkidetasuna, emakumezkoek eta gizonezkoek festaz gozatzeko, eta jazarpen eta sexu erasoaren prebentzioa;

“errespetua eta onartzeko jarre- rak bulkatzeko, festetan ere eze-tza ulertu behar delako”.

Parte-hartzaileek bina lan aurkeztu ditzakete gehienez. Honako testua agertu beharko da: “*Jaietan eta urte osoan, berdintasuna. En fiestas y todo el año de igual a igual. Jaietan eta etxeko eta familiaren ardura denontzat. En fiestas también, las responsabilidades de casa y familia para todos y todas. Jaietan ere erasorik ez. Fiestas sin agresiones. Decir no, siempre quiere*



decir no. Ezezkoak ezetza esan nahi du festetan ere”. Altsasuko Emakumeen Bilguneko logoa eta Altsasuko Udaleko logoa agertu behar dira (www.altsasu.net). 16ra arteko epea dago lanak aurkezteko.

>> Uharte Arakil

Ur Festa Goxoa Uharteko igerilekuan

Asteazkenean, 20:00etatik aurrera

Gozamenez programaren barruan, Ur Festa Goxoaz gozatzeko aukera izanen dute gazte uhartearrek asteazken iluntzean. 20:00etatik aurrera irri tailerrean parte hartzeko aukera izanen dute. 21:15ean bokata trago batekin afaltzeko aukera izanen dute parte-hartzaileek (2,5 euro). Festadespeditzeko, 22:00etatik aurrera ur jokoekin eta bainuarekin gozatzeko aukera izanen dute gazteek.

>> Uharte Arakil

Eskalatzailea Aiztondon hila

Ostiralean, 21:25 aldera, jazo zen ezbeharra. Uharte Arakilen eskalatzen ari zen 45 urteko gizon noaindarra 10 eta 20 metroko altueratik erori zen eta unean bertan hil zen. Eskaladan etamendian eskarmentua zuengizonak. Altsasutik joandako medikuek heriotza ziurtatu besterik ezin izan zuten egin. Altsasuko parkeko suhiltzaileek erreskatatu zuten gorpua ondoren autopsia egiteko. Ezbeharra Foruzaingoak ikertu zuen.

>> Bakaiku / Iturmendi

Larri zauritua parapentean lur hartzean

Santa Marina ermitaren kontra kolpea hartu zuen gizonak

Hegaldiaren ondoren Santa Marina ermitaren ondoan lur hartu behar zuen 51 urteko gizonak, desbideratu eta ermitaren kontra kolpe handia hartu zuen. Igandean 18:35 aldera jazo zen ezbeharra. Paretarekin talka egin ondoren hura artatzera larrialdietako mediku taldea joan zen. Helikopteroan eraman zuten Iruñeko ospitalera. Foruzaingoak ikertu zituen ezbeharren arrazoiak.

Sorgiñak
taberna

LAKUNTZA
948 576 357

FELIX OTEGI

TAXIA
9 lagunendako tokiak

660 342 071
IRURTZUN

GANUZA SUKALDEAK
SUKALDERAKO ALTZARIAK

Bainu gelako altzariak
Horma armairuak
Elektragailuak

GANUZA GARANTIAREKIN

Tel.: 948 460 203
faxa: 948 460 673
Etxarriko industrialdea
ETXARRI-ARANATZ

PPSOE,

ETB digitala

Nafarroan orain!

Berria erosi taldea

» Arbizu

Oinarritzko zerbitzuak mantentzeko aurrekontua

Arbizuko Udalak 1.146.728,54 euroko aurrekontua izanen du aurtengo urtekoaren pareko. Miren Mendinueta alkateak azaldu digunez, "lehentasuna oinarritzko zerbitzu orokorrak mantentzea izan da: kiroldegia eta Kattuka haur eskola". Alkateak aitortu du udalaren ekonomia egoera ez dela

erraza zorrotz aridirela aurrekontua gauzatzen. Horrekin batera, Tracasa enpresaren bidez udal tasak errebisatzeari eta eguneratzeari ekin dio udalak. Bestalde, Olatzea hotela alokatzea ere erabaki zuen udalak.

Mendinueta azaldu digunez, kultur arloan herritarren parte

hartzea oso handia izaten da eta horrek gastuak gutxitzea ekarri du. Beste ekitaldietan ahalik eta autofinantzatzete maila handiena bilatzen saiatu da udala, hala, duatloiko sarrera eta irteera berdintzea lortu dutela azaldu digu. Garai batean udalak laguntzen zituen ikastaroak, orain, ezin

duenez autofinantzatu eginen dira. Egoera horretan udalak inbertsiorik egitea ez duela aurreikusten jakinarazi digu alkateak.

Errotanda

Arbizuko industrialdeko 3. zatian Baikor enpresak lursaila erosi eta han pabilioia eraikitzen ari da. Bide berrira atera ahal izateko Nafarroako Gobernuak propio eskatuta errontonda bat eginen da errepidean.



Lanen ikuspegia.

» Altsasu

Festen ondoren garabi zerbitzua martxan jarriko da

Badoo duten herritarren ateen aurrean askotan aparkatzen dute eta kexa asko jasotzen ditu udalak

"Askotan gertatzen da goizeko 6:00etan udaletxera hotsegiten duela badoo duen jendeak ibilgailua bajeatetik ezin dutela atera esanez; bajeako ate aurrean aparkatu ditela. Altsasuko Udalak ez du gaitasunik ibilgailua handik kentzeko". Errepublikatzen den arazo horren berri eman digu Garazi Urrestarazu Zubizarreta alkateak. Eta konponbidea aurreratu du: "horiez gertatzeko garabia zerbitzua jarriko du udalak. Baina jendeak ongi aparkatzen badu garabia herrian ez dugu ikusi ere eginen".



Autoa zebrabide gainean aparkatuta.

Aipatutako kasuaz gain, garabiak ibilgailuak kenduko lituzke trafikoa arauak hautsikobalitu, ibilgailua utzia badago, epaitegien

agindua edo bahitura eskaera bada, lapurtua izan delako, arrisku-tua izan litekeelako edo ekitaldi edo zerbitzu publikoak izan behar

direlako. Maiatzeko bilkuran onartu zuen garabia zerbitzua arautzeko ordenantza Altsasuko Udalak. Baina ez da hori egin duen aurreneko aldia. Duela bi urte ere onartu egin zuen, baina orduan inongo enpresak ez zuten interesik azaldu.

Tasak

Ibilgailua kentzeko lanak hasi, eta jabea agertzen bada 50 euro ordaindu beharko dute 2.000 kilo arteko ibilgailuen jabeek. 78 euro pisu horretatik gorakoek eta 100 euro 3 metroko altuera eta 6 metro luze baino gehiago dituztenak. Erretiratze-agatik: 91, 162 eta 194 euro. Egunko gehitu beharko da 9, 14 eta 19 euro.

Zelandiko itxitura

Alkateak esan digunez, "Nafarroako Gobernuak inbertsioak bere gain hartu beharrean diru-laguntza deialdia egiten du, udalekin batera gastua partekatzen". Urrestarazuk azaldu digunez, Zelanditik jasotako lanen artean lehentasunak jarri zituen udalak. Joan zen urtean berogailu sistemaren zirkuitu guztia berritu zen eskola publikoan. Aurtengo perimetroko hesitura eta teilatua konponduko dira. Hezkuntza Departamentua 2006an egitekoa zen itxitura.

SAKANA

Asteazkenean hasiko dira Udako Ikastaroak


Sakantzen Sareak antolatu dituen Udako Ikastaroak enpresa berriak sortzeko asmoa duten pertsonen laguntza ematea dute helburu. Horretarako, prestakuntza eskainiko zaie. Ikastaroak ibarrean ekin-tailetasuna sustatzeko bidea ere badira Sakantzen Sarearendako.

Heldu den astean bi izanen dira antolatu diren ikastaroak. Lehenak, Nekazaritza ekologikorako talde-prozesuen dinamizazioa eta kohesioa izenburua du. Asteazkenean, 16:00etatik 20:00etara, Altsasun izanen da. Silvia Larrañeta Armendariz izanen da irakaslea. Arrea Elkarte Agroekologikoa-

ren kidea, nekazal ingeniari teknikoa, Ingurugiro Zientzietan Lizentziatua eta Agroekologian Masterduna.

Nekazaritza ekologikoaren inguruan sortutako talde eta esperientzi kolektiboen dinamizazioa, kohesioa eta ikasketa kolektiboa ezinbestekoak dira. Horregatik, ikastaroan nekazaritza ekologikoaren oinarriak aztertuko dira, dinamika parte-hartzaileen bitartez etorkizunean gauzatzeko teknika ikasketa eta kohesioa landuz.

Kontabilitate eta fiskalitate prestakuntza hasiberriendako ikastaroa ostegunean izanen da Lakun-



Hizlariaren azalpenak entzuten Sakantzenek antolatutako saioan.

tzan, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara. SAK-IN Kontsulting Kooperatibako kideek

"zerotik abiatutako" prestakuntza praktikoa eskainiko diete kontulariak ez diren, baina kontabilita-

Izena emateko

sakantzensarea@gmail.com hel-bidea edo 690.036.879 telefonoa.

teezagutza praktikoak behar dituzten pertsonen.

Gehiago

Hilaren 23an, Lakuntzan, Turismo aktiboa, legedia eta kudeaketa ikastaroa izanen da (10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era). 29an eta 30ean, Lakuntzan bertan, Inkubategi kooperatiboa aurkeztuko dute.

PIVE PLANA AMATZEAR

CITROËN prefere TOTAL

www.citroen.es

f t y

★ PRECIOS SUPER ESTRELLA

carstore.citroen.es-en

SERIE BEREZIA

CITROËN C4 HDi TONIC 13.300€*

CITROËN C-ELYSEE VTi EXCLUSIVE 10.500€*

KONSUMO MISTOA (L/100 KM) / CO₂ IGORPENA (G/KM):
 CITROËN C4: 4,2-6,4 / 109-148
 CITROËN C-ELYSEE: 4,1-6,5 / 108-151

*CITROËN C4 HDi 90 Tonic PSP aholkatua, (zergak, garraioa, eskaintza eta PIVE2 plana barne), bezero partikularrentzat zeintzuk PIVE planera bilduko diren eta eroslearen kobrea emango duten; 6.000 ko gutxieneko kapitala eta 36 hilabeteko iraunkortasuna izango duena, Banque PSA Financearen bidez CITROËN PREMIUM finantzatzeko luke eta Essentialdrive komertzial bermearen luzapena kontratatuko lukena gutxienez 2+1 edo 40.000 km (lehenengo gertatuko dena) hilabeteko abono bidez; finantzaketaren gutxieneko iraunkortasunaren betebeharrarekin, 36 hilabeteko zerbitzuarekin, CITROËN C-ELYSEE VTi 72 Exclusive (zergak, garraioa, eskaintza eta PIVE2 plana barne) bezero partikularrentzat zeintzuk PIVE planera bilduko diren eta eroslearen Citroën bat emango duten; 6.000 ko gutxieneko kapitala finantzatzeko dutenak, 36 hilabeteko iraunkortasuna izango duena, AXA S.A. aseguru etxean kobetarako aseguru eta reasegurak kontratatuko dituztenak Banque PSA Financearen bidez, erregistro zenbakia web orrian ikusgai www.orias.fr. Hilabete alabarako eskaintza partehartzaileen salmenta tokietan. Modeloa ikusgarri: Citroën C4 Exclusive eta Citroën C-ELYSEE VTi 72 Exclusive. Eskaintza ez metagarria. Baldintzak www.citroen.es

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

Lazaro Echeverria, astelehenean bilera berria

Langileen 129. greba eguna da gaur
Atzo goizean bildu ziren Lazaro Echeverriako zuzendaritza eta langileen ordezkariak. Bileran alde bakoitzak bereari eutsi zionez, astelehen eguerdirako jarri dute hitzordu berria. Bai zuzendaritzak bai langileek proposa-

men bana eramanen dute bilera horretara. Langileen ordezkariak pozik azaldu ziren mahaira hitz egitera eseri direlako eta Lourdes Goikoetxea lehendakariordeak zabaldutako negoziazorako ateak zabalik segitzen duelako. Bitartean grebak segitzen du.

Martxoaren 6an hasi zuten mugagabeko greba langileek (ELA-ko 3 ordezkari enpresa batzordean). Kaleratu dituzten sei kideak enpresak berriro har ditzala eskatzen dute. Gainera, lan eta soldata baldintzak blindatuko dituen hitzarmena ere aldarrikatzen dituzte.



Langileek euren protesta lortia kultur gunera eraman dute. ARTXIBOA

SAKANA



Festara Jaibusean. ARTXIBOA

JaiBusa errepidean

Irteerak 23:00etan eta 24:00etan dira. Itzulerak, berriz, 3:00etan, 5:00etan eta 7:00etan. Joan etorriak 2,5 euro balio du
Aurten dagoeneko sei gautan bidaiak egin ditu autobus gautxoriak. Eta beste 10 irteera egingen ditu. Kontsumitzen ez duten pertsonak badaude ere, festetan eta parranda giroan alkohola eta zenbait substantzia kontsumitzea nahiko barneratuak dauden ohi-

turak dira. Horiek ibilgailuak gida-tzearekin bateragarriak ez direnez, auto istripuen kopurua murrizteko zerbitzua da. Hala sortu zuten Sakana-ko Gizarte Zerbitzuetako hiru Mankomunitateek eta Sakanako Mankomunitateak.



Egutegia	Herriak
Garilak 20	Irurtzun eta Iturmendi.
Garilak 27	Bakaiku eta Olatzagutia.
Agorrilak 3	Etxarren eta Etxarri Aranatz.
Agorrilak 24	Errotz eta Lakuntza
Agorrilak 31	Errotz, Ihabar eta Irañeta.
Irailak 7	Etxeberri, Hiriberri eta Ziordia.
Irailak 14	Altsasu.
Irailak 28	Ekai, Uharte Arakil eta Olatzagutia.
Lastailak 5	Etxarri Aranatz.
Azaroak 2	Irurtzongo Pikurock.

FESTAK Iturmendi:

>> Uztailak 16, asteartea.
Karmen eguna
12:00etan Txupinazoa.
12:00etan Patriaren aldeko meza.
12:45ean Aizkora apustua.
13:00etan Herriko txistulari eta dantza-riak.
13:00etan Auzatea.
18:00etan Pilota partidak herriko gazteekin.
20:30etik 22:00etara Triki-poteoa.
22:00etan Zezenzuskua.
22:30etan Emakumezkoen afaria.
22:30etan Gazte afaria Gaztetxean.
Arratsaldean eta gauean musika Etxenike-
rekin.

>> Uztailak 17, asteazkena.
Jubilatuaren eguna
13:00etan Auzatea eta toka txapelketa.
13:00etan "Kontxi y sus Mariatxis" musika taldea.
13:30ean Iturmendiko 100 urteko emakumeei omenaldia.
14:30ean Jubilatuaren bazkaria Aritzaga elkartean.
14:30ean Bazkari herrikoia frontoian.
18:00etan Herri Kirolak.

>> Uztailak 17, asteazkena
17:00etan Kartelen erakusketa: Irurtzongo Festak 2013. Udaleko osoko bilkuren aretoan.
17:30ean Zapiak eta erraldoi eta buruhandien konpartsaren liburua emanen zaizkie 2012an sortutako haurrei.
18:00etan Txupinazoa festei hasiera emateko. Kalejira: erraldoi eta buruhandien konpartsa, gaitariak, Orritz Dantza taldea eta Turrutxiki txaranja.
19:30ean Gaztea Alai (Argentina) eta Orritz dantza taldeen emanaldia.
21:00etan Dantzaldia, txarangak eta gaitariak emana. Jauziak.
22:00etan Larrain dantza.
22:25ean Zezenzuskua eta buruhandiak. Kultur Etxean hasi eta Gernika Parkean bukatuko da.
22:30ean Herri afaria (Barazkien plazan).
00:00etatik 4:00etara Dantzaldia Alai ki taldearekin.

>> Uztailak 18, osteguna
10:00etan Dianak.
11:00etatik 12:30era Haurrendako margotze lehiaketa plazan (Antolatzaileek jarriko dute materiala).
12:00etatik 14:00etara Haur parkea:

Arratsaldean eta gauean musika Txirri Terri taldearekin.

>> Uztailak 18, osteguna.
Santa Marina eguna
10:00etan Santa Marinara iogoera.
12:00etan Meza Santa Marinako ermitan.
13:00etan Trikitixak.
15:00etan Bazkaria koadrilaka.
18:00etan Herrira jaitsiera.
19:00etan Auzatea San Pedro ermitan, trikitixekin.
22:00etan Afari herrikoia frontoian.
Arratsaldean eta gauean musika Gozo-Gozo taldearekin.

*Egunero auzatea (eguerdian eta arratsaldean), buruhandiak, bonba japoniarrak eta argidun zezentxoak.



Dino Striker pista, atea, puzgarriak, bolak-ludoteka...
13:00etan Musika eskolako fanfarrea.
17:00etan Gorputza margotzea (Irurtzongo Margotze Gela). Plazan.
17:00etatik 20:00etara Haur parkea: Dino Striker pista, atea, puzgarriak, bolak-ludoteka...
18:30ean Pilota, amateurrak. Sarrera doan.
19:30ean Haurrendako txokolate jatea

(zeliakoendako ere bai).
20:00etan Dantzaldia Jamaica Show orkestrarekin.
22:00etan Larrain Dantza.
22:25ean Zezenzuskua eta buruhandiak. Kultur Etxean hasi eta Gernika Parkean bukatuko da.
00:00etatik 3:00etara Dantzaldia Jamaica Show orkestrarekin.

Lizarrakalea 8
tel. 948-50 00 87
IRURTZUN

Berezigatasunak: ODOLKIAK, SALTIXITXAK, BETEGARRIAK, TXISTORRAK eta ETXKO FRITOAK.

Jai zoriontsuak pasa!

T. IRIARTE
harategi eta urdaitegia

urrutia enea

Irurtzun
948 500 086
Lekunberri
948 504 105
info@urrutiaenea.com
www.urrutiaenea.com

Vizu

ileapaindegia
Nerea Vizuete Fernández

Festak ongi pasa!

Tel: 948 56 36 35
Zirinkale, 5 • ITURMENDI

Barazkigunea 2013

>> Uztailak 17, asteazkena
13:00etan Gunearen irekiera txalaparta eta trikitixarekin.
22:30ean Afari Herrikoia (Orritz eta Pikuxar).

>> Uztailak 18, osteguna
14:30ean Gazte bazkaria. Ondoren erronda bajeetatik "guri musikalarekin".
19:00etan Ginkana.
23:00etan Kontzertua: Txep+Lagunak, Semifusa Ye-ye and The Time Machine. Ondoren DJ eder Pardo eta DJ Gordon.
3:00etan Txoznetan dantzaldia bukatzean III. Txapel jaurtiketa lehiaketa.

*Antolatzailea: Irurtzongo Herri Mugimendua.

Hondakin bilketa sistema berria

SAKANA

Birziklatzearen aro berria

Aste honetako egokitzapenaren ondoren heldu den astean normal aritzea espero dute Mank-en

Garagarrilaren 27an hasi behar zena, eguraldiak atzeratu eta, azkenik, astelehenean hasi da. Birziklatzea handitu eta berrerabili ezin daitezkeen hondakinen bilketa kopurua handitzea du helburu Sakanako Mankomunitateak martxan jarri duen sistema berriak. Atez ateko hondakin sistema bilketa berria Uharte-Arakilen, Lakuntzan, Arbizun, Iturmendin, Bakaikun, Urdiainen eta Olatzagutian ezarri da. Sistema mistoa, berriz, Arakilen, Irañetan, Arruazun, Ergoiena eta Ziordian ezarri da. Momentuz kanpoan gelditu dira Irurtzun eta Altsasu, ohiko bil-

ketarekin segituko dutenak. Edukiontzia pixkanaka kaleetatik desagertzen hasi ziren: astelehenean Uharte Arakilen eta Etxarri Aranatzan; asteartean Urdiainen eta Olatzagutian; asteazkenean Arbizun, Bakaikun eta Iturmendin eta atzo Lakuntzan eta Arbizun. Edukiontzia kaleetan segitzen zutela ikusita, hainbatek orain arte bezala hondakinak haietara bota zituzten. Aitor Karasatorre Mugu-ruza presidentek esan digunez, “ederki dakigu denbora pixka bat beharko dela sistema berriek behar bezala funtziona dezaten”. Edukiontzia kentzearekin batera sakandar batzuen artean ezin gonasortuz, egiaren ordua iritsita bereizketa ongi egiten ote

zuten edo haien baldea ez zela jaso (halakoak arratsalde zeto zituzten). Horren ondorioz, argibide eske Mank-era egindako telefono deiak ugaritu egin dira. Beste ondorio bat izan da, hasieran izena emanda ez zeuden denda batzuek ere izena eman dutela edukiontzia ez daudela ikusi ondoren. “Heldu den astean dena normalizatzea espero dugu” azaldu digu Adolfo Araizek, Mank-eko gerenteak. Aitzindariak Nafarroan Karasatorrek ukitutako sakandarreri eskatu die lehendabiziko egunetik erakutsi zezatela gaikako biltzaren aldeko apustua errealitate bat dela eta emaitzen hobekuntza aurreneko unetik hasiko dela. Pre-

sidenteak nabarmendu du atezatekoa Nafarroan ezartzen den aurreneko aldia dela. “Horregatik, udal-erri horietako herritarrek erakutsi ahal izango dute badela hondakinak gaika biltzeko beste modu bat eta sistema horrek herritarrei etxean bertan egiteko eskatzen dien lana ingurumenaren alde izan behar duten inplikazioaren erakusgarri baino ez dela”. Sistema berria martxan jarrita “birziklatzearen alde, hondakindegietan botatzen diren hondakin kopurua murriztearen alde eta erraustegien desagerpenaren alde izugarriko aurrerapausoa” eman dela aipatu dute Mank-en. “Sakandarrak laster harro sentituko dira eskualdean ezarriko diren honda-

750 kilo

Hondakin organiko jaso zen atzo Etxarri Aranatzan, “purutasun nahiko onekoa” ziurtatu du Araizek. Egunetik egunera gero eta hondakin organiko gehiago biltzen ari direla ere gaineratu du.

kinen biltzetarako sistemez, Nafarroako mankomunitate eta herriendako eredu bilakatuko baitira”. Kontra Uharte Arakilen sistema berriaren kontrako 180 sinadura aurkeztu zituzten aurreko astean. “Inposiziotzat” jo zuten sistema berria eta galdeketa eskatu zuten. Aurretik Irurtzun 600 sinadura jaso ziren eta Arbizun 258 sinadura bildu ziren. Olatzagutiko zenbait etxetako leihotatik protesta moduan zabor poltsak zintzilik daude.



Hondakin organikoak dituzten pertzak zintzilikarioran.

Gora beherak

Aurreko asteko asteazken gauean Uharte Arakilen, Mendikoan, auzo-konpostagailu bati su eman zioten eta txikituta gelditu zen. Hurrengo egunerako berria jarrita zegoen. Baina Mank-ek Foruzaingoan salatu zuen gertatutakoa. Bestalde, Urdiango festetan hondakinez betetako baldeak uzteko hainbat zintzilikari odun zutoin hautsi zituzten.

Ordenantza berria

Astelehenean egindako batzarrean Mank-ek hondakinen inguruko ordenantza berria onartu zuen. Araizek azaldu digunez, legediak mankomunitateak hilaren akabera baino lehen ordenantza berria onartzera behartzen ditu. “Nafarroako Gobernuak eta Ecoembesek proposatutako eredu egoki-

tu dugu Sakanarako, indarrean dauden hiru sistemak bere baitan hartuz” argitu du Araizek. Gobernuak eta birziklatze enpresak eredu horretan hondakinak egokiez bereizteagatik zigorrak jarzea erabaki zuten. Karasatorrek aurreratu duenez, behin eta berriro araua hausten duenari jarriko zaio halako zigorra. Bestalde, Mank-ek astelehenean erabaki zuen ontzi arinen biltzetarako Nafarroako Gobernuak eta Ecoembesek sinatutako hitzar-

menari atxikitzea. Orain arte Mank-ek zuzenean sinatzen zuen hitzarmena enpresarekin, baina orain Nafarroa guztirako hitzarmen bakarra izanen da. Araizek esan digunez, jasotako ontzi kopuruagatik Ecoembesek gutxiago ordainduko du, “baina hondakin bilketa sistema berriarekin ontzi arin gehiago bilduko ditugunez gehiago kobratzea espero dugu”. Hondakin bilketa sistema berria finantzatzeko Mank-en beste diru iturri bat Nafarroako Hondakin Partzuergoaren konpostatzea sustatzeko hitzarmena da. Mank-ek 200.000 euro jasotzea espero du.

Bilketa egutegia da!



Mank-ek zortzi herrietako etxetan banatu duen egutegiak astegun horretan kamioiek jasoko dutena adierazten du. Beraz, bezperako 20:00etatik aurrera atera daiteke egun bakoitzari dagokion hondakina. Esaterako, igandean eta asteazkenean iluntzean materia organikoa atera beharko da, astelehen eta ostegunean jaso dezaten. Ontzi arinak astelehen eta ostegunetan atera beharko dira asteartean eta ostiraletan jasotzeko. Asteartean papera atera beharko da asteazkenean bildu dezaten eta, azkenik, ostiral gauean errefusa utzi beharko da larunbatean biltzeko.

Edukiontziekin zer?



Zortzi herrietako kaleetatik kendutako edukiontzia Sakanako lantegietan banatuko ditu Mank-ek. Lantegi bakoitzaren barruan edukiontzia urdin, hori eta berde bana izanen da. Enpresa bakoitzeko edukiontzia identifikatuta egonen dira.

Informazioa

Uharte Arakil, Etxarri Aranatz eta Olatzagutian zabalik daude informazio bulegoak. Hondakinak biltzeko sistema berrira egokitzeko materiala jaso ez dutenek handik pasatzea besterik ez dute. Argibideak eskatzeko edo zalantzak

argitzeko 900 730 450 telefonora hots egin daiteke. Bestalde, Interneten www.sakana-mank.com/hondakinak blogean, www.facebook.com/sakana-mank eta www.twitter.com/sakana-mank sare sozialetan informazioa eskuratu daiteke. Baita info@sakana-mank.com postaren bidez ere.

Ongi pasa festetan!

LA TAHONA

Zugandik gertu

948 500 306 • San Martin • Irurtzun

PATXI GALARZA

AUTOZERBITZUA • ARRAINDEGIA • HARATEGIA

HARATEGIA PATXI GALARZA

Jai zoriontsuak pasa!

Aliprox 948 600 685 • Aralar kalea 1 • IRURTZUN

SAKANA

“Beste hainbat arlotan murrizketak egin dituzte, ingurumen sailaren unea iritsi da”

Besteak beste Urbasa-Andia natur parkea kudeatzen duen GAN enpresa publikoak 65 langile kaleratu ditu

Bi sakandarrek lan egiten dute Nafarroako Ingurumen Kudeaketa (GAN) enpresa publikoan: Asun Berastegi arbizuarra eta Jon Zufiarre urdiaindarrak. Hilabete-ko negoziaketak ez du ezertarako balio bi sakandarrek azaldu dutenaren arabera. Hilabete luzea eta gogorra izan da Berastegi eta Zufiarrendako. Nafarroako Gobernuak negoziazio txarra egin duela adierazi du Berastegik. Gidoi bat jarraitu dutela esan du Zufiarrek. E-maila gogorra izan da: Zufiarre kaleratze gutunaren zain dago eta Berastegi hurrengo urteko kaleratzeen zerrendan dago. Aurretik hartutako erabakia zela azaldu du Berastegik: “diru pixka bat ateratzeko enpresa publiko hau murriztu zezaketela pentsatu dute”.

Garagarriaren 7an jaso zuten langileek enplegua erregulatzeke espedienteak. Espedienteak 65 langile kaleratuko zirela zioen. Arrazoiak dira antolakuntza eta kudeaketa irizpideak jarraituta ekonomikoki okerrera egin duela enpresak; 2012 eta 2013 urteetan diru sarrerean jaitsiera izan dela. Egoera orokorra erabiltzen du gerentziak ekonomikoki gabeziak daudela ziurtatzeko Berastegik azaldu duenaren arabera: “korporazioa hartu dute



Nafarroako ingurumena kudeatzen dute enpresa horretan. Zufiarrek Urbasa-Andia natur-parkean lan egiten zuen eta Berastegik biodibertsitate arloan. Plantilaren %55 kaleratu dute, beraz, enpresaren jardura kolokan jartzen da langileen ustetan. “Ez dakigu nola jarraituko duten aurrera. Agian jendeak ez du nabaritu, baina geratzen diren langileek bai”. Proiektu berriak martxan jarri edo zenbait proiekturen balorazioak egin behar dituzte, besteak beste. Lankideek izan duten elkartasuna goraiatu dute Sakanako langileek. Hasieratik elkarrekin egon ziren, eta horrek negoziazioarekin aurrera egiteko indarrak eman dizkie. “Kaleratzeen zerrenda jaso genuenean ez genuen irakurri ere egin, denok batera aritzeko”. Lan-magistruaren aurreko gatazka kolektiboa hasiko dute.

datu horiek egiteko. Nahiko nahi da dena. Izan ere, gure arloa ongi zihuan, baina enpresa horretan beste hainbat daude, Los Arcos-eko zirkuitua esaterako. Batzuk zor handia dute, beste batzuk diru funtsen-ekin eta aurrera egin dezakete”. Sarreren jaitsiera %15ekoa izan dela gaineratu du. Gerentziak datuak haien nahietara maneiatzen dituela esan du Zufiarrek.

Negoizazioaz

Langileak laster hasi ziren borrokan. Greba hasi zuten, baita mobilizazioak, protestak eta idatziak egunkarietara ere. Langileen eta gerentziaren arteko negoziazio prozesua hasi zen. Langileak elkartu ziren eta 65 proposamen egin zituzten, hurrengo urtean diru-sarrerean jaitsiera handiagoa izanez gero aurrera egin ahal izateko. “Ez zituz-

ten proposamenak baloratu ezta entzun ere egin”, esan du Berastegik. “Gainera, gerente bati gauzak nola egin behar diren esatea ez dute batere ongi hartzen”, gaineratu du Zufiarrek. Hortaz, negoziazio luzea izan dela onartu dute.

Gerentziatik ez zuten urratsik eman negoziazio prozesua bukatzeko zorian zegoen arte. “Azken biegunetan proposamen berri bat aurkez-

tu zuten; hartu edo utzi egin behar genuen”, azaldu du Zufiarrek. Gobernuak azken unean proposatutako baldintzen artean hasiera batean 52 kaleratze egotea eta beste txanda batean 23 izatea zegoen. 25 egun lan egindako urte bakoitzeko kalte-ordaina eta sei hilabete buruan lana ez aurkitzekotan 33 egunera igoko zena. “52 kaleratze gehiegizkoa iruditzen zitzaigun ere, gainera, hurrengo urtean lan gabe egon behar zirenen kalte-ordainean igoera txiki hori izateko”, azaldu du Berastegik. Proposamenaren ere 2014 urtean kaleratzeak izatea aurreikusten zen. “Ez dizute inolako bermerik ematen”. Jarritako baldintzak zirela eta langileek ez zuten proposamena onartu.

Gobernutik egindako proposamena ez dutenez onartu, negoziazio prozesua amaitutzat eman da eta aurkeztutako lehenengo espedienteak onartu da; hortaz, GAN enpresako 65 langile kaleratu dituzte. Haien artean Zufiarre dago. Berastegi hurrengo urteko kaleratzeen zerrendan dago: “datu ekonomikoek okerrera egiten badute kalera joan naiteke ere”. Gobernuaren 2014ko aurrekontuen menpe geratzen dira. “Esandigutenez geroak okerrera egingo du, baina aurrekontuak ez daki inork nolakoak izango diren; ezin dute aurreikusitakoak izango den 2014 urtea”.

Irurtzun

Inbertitzaileak aurkeztu du Inasarako eskaintza

Herenegun proposamen ofiziala egin zuen Gryphus Partners inbertsiogileak. Hura behar bezala egin ahal izateko ekonomista eta abokatu talde bat kontratatu du. Eskaintza hori aurreko ostegunean Nafarroako Gobernuarekin, epailearekin, hartzekodunen lehiaketako kudeatzailearekin eta langile ohiekin elkartu ondoren egin du inbertitzaileak. Langile ohiek ez dute aste honetan berririk espero.

Asteartean Inasako jabe den



Langile ohiak eta herritarrak batzartuta. ARTXIBOA

Mobilizazioa

Inasako langile ohiek Irurtzun-ko festetako ostiralean, hilaren 19an, haien borroka azalarazi nahi dute. Sakandarrei babesa eta laguntza eskatu diete.

Bavaria Industrial Kapital AG-eko (Baikap) Santiago Gonzalez Berganzonesekin bildu zen inbertitzailea, baina bilera ez zen ongi

bukatu. Asteartean bertan Gonzalezek hartzekodunen lehiaketako arduradunari baimena eskatu zion makineria desmuntatzeko. Inasako langile ohiek bitartean lantegiko atean segitzen dute. Makineria erosi zuen talde ingeleseko langileak ez dira bueltatu.

Inasa berriro txupinazoan

Iruñeko festei hasiera ematen dion txupinazoaren zain zegoen jendearen artean Inasako langile ohiak izan ziren. Inasa aurrera, 410 egun borrokan zioen pankarta zabaldu zuten jendartearen.

PORTUKO okindegia
Ogiaren artisauak

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

BILTOKI
TABERNA • JATETKEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Astelehenetik ostiralera
Eguneko menua
8,25€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

ALZATE
ERAIKUNTZAK s.l.

Zubetia 21, Altsasu
Tel. 948 562 745 • Fax 948 467 600
www.construccionesalzate.com

ANTSOTENEA
denda

Makailua
Konjelatuak

Tel.: 948 500 388
Foru enparantza 1
IRURTZUN



GRUPO TANATORIO

IRACHE

TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es

Oroigarriak



Guaixe

KOMUNIKAZIOA

948 564 275



Mª Angeles

Amillano Urdiain

Izeba,
emakume alaia, dantzaria;
azkarra, kantaria.
Bihotz handiko dama.

Zure ilobek



Amainazi

Aberastu gaituzu Amainazi.
Maitasunez beteta sentitzen gara
gure ondoan egon zarelako beti,
beti prest laguntzeko,
gure ondoan, beti,
Amainazi.

Zure bilobak eta birbilobak



Hainbat aukera

Galdetu

948 564 275



Juan Ramon LLamas

Beti gogoan
izango zaitugu.

Zure familia



Inazi Izagirre

Eskerrak eman nahi dizkizuegu
une hauetan gure ondoan
egon zareten guztiei.

Senideak

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 DENETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefona: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorian@guaixe.net

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

Iruñean pisu bat alokatzen da. NUPTik hiru minutura. Ikasleak bakarrik. Telef: 618- 55 83 92.

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Dorraoko festetan bi taberna alokatzen dira. Festak abuztuaren 15etik 18ra izango dira. Interesatuak dei dezala 626- 59 23 18 telefonora uztailaren 30a baino lehen.

Bakaikuko Bakarreko-Etxea elkartearen festetan alokatuko da.

Enkartearen hasierako prezioa 2.000 € lokal handia eta 1.000 € lokal txikia. Epearen bukaera uztailaren 12an gaueko 21:30ean. Harremanetarako Kontxi 948- 56 26 56.

Opatutakoak / galdutakoak

OPATUTAKOAK

Kanario bat (edo antzeko txoria) opatu dut Etxarrin. Uztailaren 8an. Galdu duenak hots egin dezala 699- 38 26 73 telefonora.

Ikastaroak

Jolas tailera ingelesez Arbizun. Abuztuaren egunero 11:00etatik 13:00era. Zuk aukeratu zenbat egun eta ordu nahi dituzun. Informazio gehiagorako ikusi www.facebook.com/GoazenEnglishSchool edo

email bat bidali goazenenglish@gmail.com

IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948- 15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>.

FOREM Navarrak eta CCOOek antolatutako ikastaroak. Informazio gehiago: 948- 13 66 88 eta <http://www.foremnavarra.org/cursos/autonomico.php>.

Lehiaketa

“Pedro de Atarrabia” XXIV literatur sariketa. Atarrabiako Udalak antolatuta, idazlanak aurkezteko epea 2013ko abuztuaren 16an.

Oharrak

Odol emaleak. Uztailaren 23an, arratsalde, Arbizun eta Lakuntzan.

Euskara irakasleen topaketa. Sakanako Gau Eskoletan eta AEKn aritutako irakasleak irailaren 2lean, larunbatarekin, bazkaltzera bilduko dira. Izena emateko eta informaziorako hots egin 646- 04 00 54 telefonora.

Haurren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu. Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza

euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

Urdiaingo eskolan negutegi bat behar dugu, hots egin telefono honetara 948- 46 83 45.

Solasaldiak nederlanderaz. Informazio gehiagoraz larrezabaldk@inigoaritza.com.

Nafarroa Oinez. Lagundu nahi bagaituzu, honako esteka honetan klik egin eta izena eman ezazu. Eskerrik asko!<https://docs.google.com/spreadsheets/embeddedform?formkey=dEZwZOZidIV6RUVTdHFjMklvR1c4TGc6MQ>.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Pikuxar Mus Txapelketa azkarra. Hilabetearen azken ostiraletan. Gaueko 22:00etan. Apuntatu ordu bat lehenago. Partidak 2 txikotara, eliminatoria. www.blogak.com/irurtzuneuskaraz/pikumus-txapelketa-azkarrak. 5 € bikoteko. Saria bi gazta.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonoe-tara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosfosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com.

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko

JAIO TZAK

• Oier Ongai Garcia, ekainaren 30ean Irurtzunen.
• Naia Teruel Rubio, uztailaren 3an Irurtzunen.

EZKONTZAK

• Aitor Azpiazu Etxarri eta Aintzane Irigoien Zelaia, uztailaren 5ean Etxarri Aranatzan.
• Souad Abatal eta Mohamed Agharchouh, uztailaren 5ean Arbizun.
• Joseba Goñi Madrigal eta Leire Ezkerra Zelaia, uztailaren 6an Etxarri Aranatzan.

HERIOTZAK

• Maria Josefa Olejua Irurtzun, uztailaren 3an Arbizun.
• Roque Arbina Lopez de Gereñu, uztailaren 3an Olaztin.
• Maria Ventura Ochoa Oyarbide, uztailaren 4an Altsasun.
• Laureano Gil Bañares, uztailaren 5ean Olaztin.
• Juan Ramon Llamas Alvarez, uztailaren 6an Altsasun.
• Ignacia Izagirre Lezea, uztailaren 6an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publiko-en inmatrikulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkarte eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorrik. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioak, gazta, arroza, pasta, galletak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezitia, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ospina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

kirola >>

TRIATLOIA

TRIATLETAK TUTERARA: Bihar, larunbatean, 230 triatletek baino gehiago hartuko dute parte XIII. Ebroko Erronka Triatloian

(750 m igerian, 22 km txirrindulan eta 5 km korrikari). Tartean triatleta sakandarrak lehiatuko dira.

Aizkora

Nazabal-Erasun Nafarroako Bikotekako txapelaren bila

Sanferminetako herri kirol programazioaren azken jaialdian, igandean, Nafarroako Bikotekako Aizkora Txapelketa jokatu da. Txapelketa Foruen Plazak hartuko du, igande eguerdian. Hiru bikote ariko dira: Jon Redondo-Donato Larretxea, Antonio-Senosiain-Juanjo Lopez Azpilikueta eta Floren Nazabal-Ander Erasun. Bikote bakoitzak 6 kanaerdiko eta 660 ontzako erdibitu beharko ditu.

Floren Nazabal da faborito nagusia, baina ikusi beharko da nola moldatzen den Ander Erasunekin. Gainontzeko bikoteak ere sendoak dira eta finalestua aurreikusten da.



Nazabalek beste txapel bat janzteko aukera du igandean Iruñean.

Pilota

Zubietak eta Jaunarenak sanferminetako final handian egon nahi dute

Aitor Zubietak eta Jon Jaunarenak Sanferminetako Binakako Torneoko finalean egoteko aukera dute, baina horretarako gaur gauean Labriten jokatu behar den partidaren Irujo eta Barriola menpean hartu beharko dituzte.

Lehendabiziko partidaren, partida ikusgarri eta lehiatua Urrutikoetxea eta Albisu 20-22 irabazi eta gero, animuz eta adorez gainera daude Aitor Zubietak eta Jon Jaunarena. Zubietak izan zen partida horretako onena, eta Jaunarenari sekulako laguntza eman zion.

Baina Irujo eta Barriola, Idoate eta Zabala irabaztetik datozere, eta faboritoak dira. Izugarri izerditu beharko dute Zubietak eta Jaunarenak irabazi nahi badute. Beste multzoan, atzo gauean jokatzeko zen Bengoetxea VI.a-Begino eta Olaizola II.a-Beroiz bikoen arteko lehia, eta irabazlea sailkatu da igandeko finalerako.

Xala-Zabaleta kanpo

Xala eta Jose Javier Zabaleta Sanferminetako Binakako Torneotik kanpo geratu dira, jokatuak bi partidak galdu ondoren. Lehen partidaren Oinatz Bengoetxeak eta Beginok 12 tantotan utzi zituzten Azkainekoa eta Etxarrengoa. Zabaleta ez zen eroso aritu. Bigarren lehian, nahiz eta izugarri jokatu, Aimar Olaizolak eta Beroizek 22-19 hartu zituzten menpean Xala eta Zabaleta, kalitate handiko partida bikain eta gogorrean. Nahiz eta Zabaletak atzean dominatu, Asegarcekoak bikain defendatu ziren.



Zubietak sekulako maila ematen ari da.

Trontza

NAFARROAKO EMAKUMEEN TRONTZA TXAPELKETA

Astondoa-Mazkiaran, bosgarrenak

Astelehenean jokatu zen, Iruñeko Foru Plazan eta sanferminetako herri kirol jaialdian barruan, Nafarroako Emakumeen Trontza Txapelketa. Sei bikote lehiatu ziren, tartean Irati Astondoa eta Ainhoa Mazkiaran altsasuarra. 45 ontzako enborrari 10 epaiekin behar izan zizkieten.

Azkarrenak Nerea Sorondo eta Amaia Garcia beratarrak izan ziren

(5:09), Itxaso Onsalo eta Leire Astiazaran aresoarrei (5:34) ia minutu erdia aterata. Elsoko Ainhoa eta Ana Iraizoz hirugarrenak izan ziren (5:46). Laugarrenak Itziar Nuñez eta Ana Lopez lezaundarrak (6:33) sailkatu ziren eta bosgarrenak Irati Astondoa eta Ainhoa Mazkiaran altsasuarra (7:07). Susana Sanchez eta Ainara Urriaza erasoarrak (8:43) izan ziren azkenak.

Atzo kadeteen Nafarroako Trontza Txapelketa jokatu zen

Atzo Nafarroako Kadete Mailako Trontza Txapelketa jokatu zen Iruñean, baina oraindik ez ditugu emaitzak jaso. Hiru biko aritzekoak ziren: Etxarriko Andra Mari ikastolako Garat Flores-Adrian Joao eta Gari Satrustegi-Izai Mauleon, eta Basaburua-Baztaneko Eneko Irigoien-Ekaitz Maritorea. Etzanda jarritako 100 zentimetroko enborrari 10 epai moztu behar zizkieten. Ondoren, kimuen mailako proba konbinatuaren erakustaldia egin zuten Basaburuak, Berriozarrek, Ultzamak eta Andra Mari.

>>

Aritz Goñi finalera

Nafarroako 3. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketan 9 aizkolari aritu ziren, tartean Aritz Goñi etxarriarra eta Josu eta Mikel Agirre arbizuarrak. Bi kanaerdiko erdibitu behar zituzten. Hiru multzotan banatuta aritu ziren aizkolariak. Guztien denborak kontuan hartuta Iker Vicente izan zen azkarrena (4:36), 16 urterekin probako errekorra gaindituz. Mieltxo Mingia 2.a sailkatu zen (4:58), Migel Angel Etxeberria 3.a (5:41), Joxean Etxeberria 4.a (5:55) eta Aritz Goñi etxarriarra 5.a (6:03). Lehendabiziko bost sailkatu hauek finalerako txartela lortu zuten. Atzetik sailkatu ziren Oier Kañameres (6:41), Mikel Agirre (8:00), Esteban Pikabea (9:21) eta Josu Agirre (10:17). Arbizuarrak ez ziren finalerako sailkatu.

Pilota

OLAZTIKO XLII. SAN MIGEL PILOTA TXAPELKETA

Azken txanpa

Olaztiko San Migel elkarrekin eta Sute-gik antolatutako pilota txapelketaren barruan beste jardunaldi bat jokatu da gaur, ostiralekin, Olaztikopilotalekuan. Txapelketaren azken txanpan murgiltzen ari gara, Santa Ana festetan final handiak egonen baitira jokoan.

Asteburuko jardunaldia

Gaur, ostiralean, 20:30ean

3. maila: Pablo-Galu / Etxeberria-Muñoa

3. maila: Eduardo-Ramiro / Aitor-Katxi

2. maila: Fot-Urko / Aitor-Eneko

1. maila: Murgiondo-Agirre / Mazkiaran-Alustiza

Txirrindularitza

Tourra: Froomek ordagoa

Asteazkenean 33 km-ko erlojupekoa jokatu zen Tourrean. Aurrekisi moduan Tony Martinek irabazi zuen. Hegan egin zuen alemaniarra (36:29), baina soilik 12 segundoko aldea aterata zion Sky taldeko Chris Froome liderrari. Froomek arerio nagusiei aldea aterako ziela espero zen, baina horren bestekoa izango zenik, ez. Egun, sailkapen orokorrean Alejandro Valverde 3:25era du liderrak, Bauke Mollema 3:37ra eta Alberto Contador 3:54ra. Tourra irabazteko aurrerapausu handia eman du Froomek, baina, oraindik, Tour asko gelditzen da. Igandeko Mont Ventoux igoera eta hurrengo asteko portuz jositako Alpe gogorrrak. Tourrean ari den Movistarreko Imanol Erviti 132.a da sailkapenean, 1:36:27ra.

ASTEBURUKO LASTERKETAK

Kadeteek igandean lasterketa dute Fontellasan, 11:00etan (52,5 km). 23 urtez azpiko afizionatuak larunbatean Sopelanan ariko dira, 16:00etan (117,5 km) eta igandean Antzuolan, 9:30ean (130 km).



Imanol Erviti Tourrean dabil.

Txirrindularitza

Euskaltelen jarraipena airean

Abuztuaren 31rako beste babeslearen bat aurkitu ezean, akabo Euskaltel-Euskadi taldearen ibilbidea. "Krisiaren eraginez, erakundeek ezin dute ordaindu taldearen aurrekontu dagokien zatia -3,5 milioi euro-. Euskaltelek 3,5 milioi euroko ekarpena egiten du urtero, eta aurtun 7 milioi koa egingodu, erakundearen bere gain hartuz. Baina Euskaltelek soilik ezin dio eutsi proiektu honi. Babesle bilatu gaude baina ez da ezer gauzatu eta proiektuak lokandago" aipatu dute talde lanarjatik.

Mendi lasterketak

Sakandarrak
Ehunmiletan
eta Goierriko Bi
Handietan

Gaur abiatuko da, Beasainen, ehunmilak ultra trail proba gogorra. 168 km ditu, eta 11.000 metroko desnibela. Mendi korrikalariak Izazpe, Erlo, Ernio, Txindoki, Aizkorri eta beste gainditu beharko dituzte. Izena eman dutenen artean sakandarrak daude: Francisco Javier Rodriguez, Jose Julian Lopez, Javier Ignacio Gonzalez, Patxi Rubio, Jone Pelaez eta Aran Larrañaga. Ehunmilakekin batera, Goierriko Bi Handiak izeneko proba antolatu dute, laburragoa baina baita ere gogorra dena (88 km eta 6.500 m desnibela). Kasu honetan Aralar eta Aizkorriko mendilerroak zeharkatzen ditu probak, Txindokitik eta Aizkorritik pasaz. Ibilbideak bat egiten du Ehunmilak probarekin, 100. kilometrotik aurrera. Ariko diren korrikalarien artean ondoko sakandarrak daude: Damian Andueza, Jorge Iradi, Joxeja Maiza, Aritz Munarriz eta Iñaki Martiarena. Guztiek ere asteburu luzea dute aurretik. Zortetik onena opa diegu.



Pelaez, Ehunmilak proban. ARTXIBOA

Motoziklismoa



Alex Mariñelarena Espainiako Txapelketako Albaceteko proban, garaipena lortu zuenean. TARGOBANK MOTORSPORT

Mariñelarenak Alemanian zain

MUNDIALEKO ALEMANIAKO MOTO GP SARI NAGUSIAN LEHIATUKO DA ALEX MARIÑELARENA, GONBIDATUTA

Alex Mariñelarena pilotu irurtzundarrak (Targobank Motorsport, Suter) beste aurrerapauso bat eman du bere ibilbidean: igandean Alemaniako Sachsenring zirkuituan jokatu den Alemaniako Moto GP Sari Nagusian lehiatuko da, Munduko Txapelketan, hain zuzen. Zalantzarik gabe, asteburukoa aukera paregabea da Irurtzungo gaztearendako. Moto 2 kategorian lehiatuko da, wild car edo gonbidatu moduan. Alex sekulako maila ematen ari da Espainiako Abiadura Txapelketako Moto 2 mailan. Hiru proba jokatu, bi irabazi ditu –Montmelókoa eta Albacetekoa– eta beste, Aragoiko MotorLanden, 3.a

izan zen. Egun, Roman Ramos da Espainiako Abiadura Txapelketako liderra (85 puntu), baina Alexek gertutik jarraitzen du (66 puntu). Lau lasterketa geratzen dira txapelketa bukatzeko eta oraindik zabal zabalik dago. Alemanian aritzeak esperientzia gehiago emango dio Irurtzungoari.

Helburua: esperientzia
“Lasterketa honekin 3. aldiz ariko gara Munduko Txapelketako Moto 2 mailan, baina aurreko esperientziekin alderatuta, hori oso ezberdina izango da. Alemaniako zirkuitua berria da guretako. Hortaz, ostiraleko entrenamenduetan pista nolakoa den ezagutu beharko dugu.

www.equipotargobank.es
Alex Mariñelaren taldearen web gunea, informazio guztiarekin.

Alemaniaragoaz esperientzia pilatzeko helburuarekin, Dunlop gorpilak gehiago ulertu eta gorpil horiekin hobetzen jarraitzeko, izan ere Espainiako Txapelketan erabiltzen ditugun Michelin gorpilekin alderatuta, oso ezberdinak baitira” azaldu du Alex Mariñelarenak. Irurtzundarra oso kontentu dago Alemaniako lasterketarekin. “Mundialeko lasterketa batean aritzea sekulako esperientzia da, eta espero dut ongi aprobetxatzea eta izugarri disfrutatzea” gaineratu du pilotu irurtzundarrak.

Primerako aukera

Targobank Motorsport taldeko Raul Millan managerrak aipatu duenez, “Targobankek, gure babesleak, Alemanian egoteko aukera eman digu. Lan ona egitea espero dugu nahiz eta taldearendako erronka izugarria izan. Etxetik kanpo lehiatzeak esfortzu handiagoa eskatzen du. Ez dugu zirkuitua ezagutzen eta oso denbora gutxi dugu bertara egokitzeko. Zalantzarik gabe, taldearendako esperientzia ona izango da”.

Bazkide zozketa

GARILEKO SARIAK:
1- ZALDI IBILALDIA 2 LAGUNENTZAT ETA EKAIN BERRIRAKO ETA AQUARIUMERAKO SARRERA BANA
2- EKAIN BERRIRAKO ETA AQUARIUMERAKO SARRERA BANA ETA JUAN BILBAOREN CDA
3- ESNE BEHIEN INTERPRETAZIO ZENTRURAKO ETA AQUARIUMERAKO SARRERA BANA ETA JUAN BILBAOREN CDA
4- ESNE BEHIEN INTERPRETAZIO ZENTRURAKO ETA AQUARIUMERAKO SARRERA BANA ETA JUAN BILBAOREN CDALIBURUA

Non erabili Beleixeguaixe txartela

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

ALDASORO HARATEGIA
ALTSASU
30€ko erosketa batengatik etxeko produktua opari.

KIXKUR ESTETIKA ZENTROA
ZIORDI
30 €ko gastuarekin %20eko deskontua produktueta.

ALFA INMOBILIARIA
ALTSASU
Etxe edo pisu baten erosketagatik 100 €ko txekea opari.

FLORY ILEAPAINDEGIA
ALTSASU
%10eko deskontua edozein zerbitzutan. 40 €tik gorako

lanetan bekainen apainketa doan.

JULENE KORTSETEGI ETA LENTZERIA
ALTSASU
50 €ko erosketa batengatik %10eko deskontua.

JON CORDON TAXIA
IRURTZUN
%10eko deskontua.

JAVIER AIZPUN HARATEGIA
UHARTE ARAKIL
50 €ko erosketetan, etxeko produktua doan.

Futbola

Txomin Nagore Mirandesera

2. MAILAKO MIRANDES SENDOTZEKO FITXATU DUTE

Abuztuaren 26an 39 urte beteko ditu Txomin Nagorek. Profesional moduan 500 partida baino gehiago jokatu ditu, futbolari oso gutxi lortzen duten marka. Numantzia ibili da azken denboraldian, eta nahiz eta Soriako taldearekin zuen kontratua despeditu, oraindik sasoian zegoela eta gutxienez beste urte bat gehiago futboleant jarraitu nahi zuela adierazi zuen irurtzundarrak. Eta bere nahia beteda, izan ere 2. Maila-Liga Adelantera igo den Club Deportivo Mirandese Nagore fitxatu du denboraldi baterako. Hainbat eskaintza zituen Nagorek, eta Anduvako klubaren alde egin du.

Mirandes 2. Mailako proiektua sendotzen ari da. 23 urteko Jose Antonio Rios fitxatu dute, eta Igor



Txomin Nagore astelehenean, Mirandeseekin aurkezpenean egin zuenean. MIRANDES

Nagoreren ibilbidea

Curriculum apartadu Txomin Nagorek. Osasunan trebatuta, hamai-kataldetan ibili da. Osasuna (1995-1997), Athletic Club (1997-1999), Numancia (1999-2001), Atlético de Madrid (2001-2003), Mallorca (2003-2004), Celta de Vigo (2004-2005), Levante (2005-2006), Numancia (2006-2013). Eta orain Mirandés (2013-...).

Martinez, Ivan Malon, Txema Pan eta Koikili hitzartuta daude. Irurtzungo erdilariak esperientzia handia eta lan egiteko gogoia eraman-gitu berarekin. “Beteranobaten esperientziarekin eta jubenil baten ilusioekin iritsi naiz Mirandesera” adierazi zuen Nagorek astelehenean egindako aurkezpenean. Irurtzundarrak gaineratu zuen “oso une onean” dagoela eta “duen esperientzia guztia” emango duela.

Areto futbola

Marc Tolrá, Xotako jokalaria berria

Bartzelona eta Xota kluba akordio batera iritsi dira. Horrela, Bartzelonako 22 urteko jokalaria Marc Tolrá denboraldi batez jokatuko du Imanol Arregiren esanetara, utzita. Oporren ondoren, abuztuaren 12an, hasiko da Irurtzungo taldearekin entrenatzen Bartzelonako.

LAU BAJA

Xotak lau jokalariren bajaren berri eman du: Araça, Ximbinha, Jonathan eta Iraitz. Lauoi ekainaren 30ean despeditzen zitzaizen kontratua, eta ez dute klubean jarraituko. Bestalde, Xotak aurre denboraldirako lagunarteko partidak lotu ditu Azkar Lugoren kontra Langrean, Marfil Santa Colomaren kontra Ripollen eta Iruñean, Nueva Generación taldearen kontra Noainen, Umaconen kontra Zaragozan eta Bartzelonaren kontra Iruñean.

Igeriketa

Igerilekuko sorosle izan nahi duzu?

Abuztuaren 19tik irailaren 6ra arte gauzatuko da igerilekuko sorosle ikastaroa, Altsasun. Izena ematea zabalik dago.

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak igerilekuko sorosle izateko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa abuztuaren 19tik irailaren 6ra arte gauzatuko da eta Ilargi taldeak eskainiko du, Altsasun. Ikastaroan desfibriladore erdiautomatikoa erabiltzen irakatsiko da ere. Aipatu formazioa bukatutakoan sorosle lanbidean aritzeko aukera eman-goen dien diploma jasoko dute ikastaroan aritu direnek.

Ordutegiari dagokionez, abuztuaren 19tik irailaren 6ra arte izanen da ikastaroa, astelehenetik ostiralera, goizeko 10:00etatik 14:00etara. Ikasleek gutxienez 16 urte izan beharko dituzte. Ikastaroaren prezioa 430 eurokoa da, eta aipatzeko da diru laguntzak jasotzeko aukera izango dela. Bestalde, ikastaroa osatzen dutenek lan politan sartzeko aukera izango dute. Informaziorako eta izena emateko Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzua (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.com). Ikastaroa ateratzeko gutxienez 14 partaide behar dira.



Futboleant murgiltzen

FUTBOL CAMPUSEKO 1.TXANDAN 34 GAZTETXO ARI DIRA FUTBOLEAN TREBATZEN

Astelehenean hasi zen Udako futbol campuseko lehen txanda. Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatu du campusa, Altsasuko Udalaren eta Nafarroako Kirol Institutuaren laguntzarekin. Campusak udako oporretan futboleant sakontzeko aukera ematen die neska-mutikoei, eta aurtengo edizioa arrakastatsua izan da. “Aurten izen emate kopuru errekorra izan dugu, eta itxaron zerrendan zeudenek ere parte hartu ahal izan dute, hirugarren monitorea bat kontratatzea erabaki dugulako. Guztira 56 gatzetxok eman dute izena” adierazi digu Mankeko kirol-teknikari Amaia Gerrikagoitiak.

3 monitorea

Udako futbol campusa Altsasuko Dantzaleku futbol zelaian eskaintzen da. Aste honetan lehen txandakoak ari dira, 2001etik 2003ra bitartean jaioetako 34 gatzetxo. Hurrengo astean 1998tik 2000 urtera bitartean jaioetako 22 gazte ari-



Haritz Goikoetxea, Beñat Mendez, Alain Davila, Ailetz Nuñez, Urtzi Galartza, Alex Santano, Ekain Alegre, Oier Gastesi, Iker Mintegi, Ioritz Agirretxe, Axio Imaz, Unai Manero, Xabier Manero, Javier Diaz, Unai Calvo, Selma Larabas Said (Saharakoa), Aitor Ovejero, Beñat Aldasoro, Unai Santano, Mikel Etxaiz, Jon Lopez de Goikoetxea, Aitor Gasanz, Julen Tejedor, Ekai Perez, Jon Perez, Unai Rodriguez, Aitor Lopez, Jose Luis Martin, Eneko Galarza, Iker Ramos, Urko Gartzia, Javier Morras, Peru Galartza eta David Alejandro Jimenez.

ko dira. Hiru entrenatzaile edo monitorean esanetara dabilta: Peio Goikoetxea, Jokin Lobo eta

Jon Lapuente. Goizeko 9:30etik 14:00etara aipatu entrenatzaileekin teoria, teknika eta praktika

uztartzeko dituzte, eta entrenamendua bukatzerakoan igerilekuetara joaten dira.

Waterpolo

Waterpoloan aritzeko aukera Etxarrin

Uztailaren 16an, asteartean, 17:00etan, Etxarriko igerilekuetan

Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzuak, Etxarri Aranazko kanpinaren laguntzarekin, waterpolo jardunaldia antolatu du asteartean, uztailaren 16an, Etxarri Aranazko igerilekuetan, 17:00etatik aurrera.

Kimuek (2004-2003), haurrek

(2002-2001) eta kadete-jubenilek (1996-1999) izango dute waterpoloan aritzeko aukera.

Izena emateko

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.com). Izena ematen duten partaideen arabera autobusa antolatuko da.



Waterpoloan. UTZITAKOA

TXUNKAI
TOSNAK
TXOSNEN ALOKAIRUA
Telf: 617947196
txunkaitxosnak@gmail.com
www.txunkaitxosnak.com
Altsasu

ARRETXE GIJONEN: Bere azken liburua, 620 euro, Gijonen aurkeztu zuen asteartean Jon Arretxek. Asturiako hirian ospatzen ari den XXVI. Semana Negarren barruan egin zuen aurkezpena arbizuarrek.

kultura >>

bazterretik

Andoni Igoa



Glenn Murcutt

Gaurko honetan arkitekto australiar bat ezagutaraztea ideia hona dela iruditut zait. Honek Glenn Murcutt du izena eta ez naiz bere bizitza kontatzen hasiko, baina auste dut berak eginduen lana plazaratzea oso interesgarria dela, hemendik aurrera arkitektura arloan urrats zuzenak emateko. Arkitektoontzat oso ezaguna da Murcutt, 2002. urtean Pritzker saria irabazi baitzuen (arkitekturako Nobel saria). Honen lana ezta bistarentzat ikusgarria den zerbait, Bilboko Guggenheim museoaren edo Balentziako zientzien hiria izan daitekeen bezala, baina honek ez du esan nahi arkitektura txarragoa egin duenik. Gainera, honek enkargu handiak ezeztatu ditu bere bizian, berak duen filosofia arkitektura zuzena eta xumea delako. Esaterako, bere bulegoan bizpahiru langile soilik dauka, deseraikuntza proiektatzen duen bulego bilaka ez dadin. Esan dudana bezala, Glenn Murcutt australiarra da eta berak diseinatuak eraikinak bertako klimara egokitu behar izan ditu. Nekazal borden formak hartu eta etxebizitza bilakatu ditu, paisaia integratuz. Material tradizionalak erabili izan ditu eta leku bakoitzeko funtzio bioklimatikoa bete izan ditu.

Beraz, arkitekto australiar honek egindako eraikuntzek sinpletasuna eta efizientzia daramatzate, baina, hala ere, adierazkortasun handikoak dira. Izan ere, zonalde bakoitzeko argiak, haizeak, klimak, espazioak, florak eta faunak, forma matendietan bere eraikuntza. Funtzionalismo ekologikoa deitzen dio berak bere lanari.



Zilarrezko lira Etxarri Aranazko abesbatzarendako

Gainera marinel-abestiaren interpretazio onenaren saria ere eskuratu zuen

Asteburuan jokatu den San Vicente de la Barquerako XLVI. marinel abestien lehiaketa Madrilgo Ganbera Abesbatzak irabazi du. Etxarri Aranazko abesbatzak bigarren saria eskuratu zuen (zilarrezko itsas lira eta 2.400 euro). Horretaz gain, Alejandro Yagüeren *Dos olas* marinel-abestiarekin interpretazio onenaren saria (600 euro) eskuratu zuen Etxarri Aranazko abesbatzak.

Bi sari aldean zitu zela, etxarriarrak pozik bueltatu ziren Kantabriatik. Lehiaketara abesbatza bakoitzak aukeratutako pieza bat eraman behar zuten eta bai madrilarrak bai etxarriarrak pieza zail bera aukeratu zuten: Einojuhani Rautavaararen *Suite de Lorca*.



Halakoetan, epaimahaiak interpretazioak konparatzeko aukera duenean, interpretazio hori bihurtzen da bi abesbatzen arteko lehiaren ardatz. Larunbateko ekitaldian bi abesbatzek ez zuten interpretazioa guztiz borobildu, hala ere,

bien kantaldiak podiumaren goiko aldera eraman zituen.

Igandean publikoaren saria erabaki zen, Guadalajarako Kromatikak eskuratu zuena. Alejandro Yagüe, Antonio Noguerak, Eva Urraldek, Esteban San Vele-

zek eta Jose Esteban Garcia Mirandak osatu zuten epaimahaia.

Hurrengo lehiaketa batean parte hartzeko grinaz bueltatu dira etxarriarrak. Pozik ere abesbatza indartzeko batutako abeslariren batek segitzea erabaki duelako.

Zinema Irurtzongo plazan

Udarekin batera, urteroko moduan, zinema emanaldiak bueltatuko dira Irurtzongo plazara. Udako Zinema zikloa asteartean zabalduko da, festen bezperan. Eta hasteko *Lo imposible* filma proiektatuko da, Asiako hegoekialdean 2004ko tsunamian Espainiako familia bati gertatutako oinarritutako ekoizpena. Mustutze horren ondorengo 6 asteazkenetan zinemarekin hitzordua izanen da Irurtzongo plazan, 22:00etan.

Karteldegia

Garilak 16 Lo imposible.
Garilak 24 Peso pesado.
Garilak 31 Blancanieves y la leyenda del cazador.
Agorrilak 7 La vida Pi.
Agorrilak 14 Sin frenos.
Agorrilak 21 Vicky bikingoa eta Thorren mailua.

Zinema kalean, Etxarri

Ostegunean, 22:00etan, Etxarri Aranazko ikastolako patioan *Aita zontzia* naiz filma ikusgai izanen da. Nork bere eserlekua eraman beharko du.

Martina Argentinan



Argentinako Rosario hirian *Ojo al Píjolo* haurrendako film laburren jaialdia hasi zen herenegun. Lehiaketara aurkeztutako lanen artean dago Urko Mauduitek zuzendutako *Martina* film laburra. Irurtzundarraren lana gaur eguerdian proiektatuko dute. Antolakuntzak igandean jakinaraziko du lan saritua.

Mauduitek esan digunez, "sorpresa galanta" izan da Argentinako lehiaketarako aukeratua izatea. Haur eta gazteei zuzendutako lehiaketa gehiagotan aurkezteko asmoa ere azaldu digu irurtzundarrak. Horretarako, Banatu Filmak banatzailearekin jarri da harremanetan zuzendaria: "Martina, banatzaile

"profesionala" duen gure lehengo film laburra da".

Irailaren 19an mustuko da Martina Iruñean dagoen Nafarroako Filmotekan. Ondoren, Iruñeko zinema aretoren batean eta Sakanan ikusteko aukera izanen da. Film laburraren aurre estrainaldia abenduan egin zen Irurtzunen.

Martina

Martina txikiak amets handiak ditu, ametsen leihoa ireki eta haiekin jolastea atsegin du... Hori da Mauduitek zuzendaritzapean Iruñeko Koop lantaldeak egin duen 5 minutu inguruko 3D animazioko film laburraren sinopsia. 4-8 urte bitarteko haurrei zuzendua dagoen arren, publiko guztiarendako aproposa den film laburra da. Sortzaileak esan digunez, lana sortzea "esperientzia oso polita izan da eta marrazki bizidunak egiteko kon-



fiantza handia eman digu". Eta aurreratu duenez, "gogor lan eginen dugu etorkizunean abenturak eta ipuin berriak kontatzeko aukeragehiago izateko".



Bloga

Martinak Interneteko atariaren helbidea du: www.renderizarte.net/martina/eu/

asteko >> : eguraldia

ostirala

larunbata

igandea

astelehena

asteartea

asteazkena

osteguna

euria: 8%

euria: 10%

euria: 13%

euria: 8%

euria: 13%

euria: 15%

euria: 13%

Min: 16 Max: 30

Min: 17 Max: 27

Min: 15 Max: 27

Min: 15 Max: 28

Min: 16 Max: 26

Min: 14 Max: 22

Min: 13 Max: 22

temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	32.3	9.5	0.1
Altsasu	30.5	10.5	0
Aralar	25	10.5	0.8
Urbasa	29	8	0

ilargiaren aldia>>

ilbehera

ilberri

ilgora

ilbete

16

22

29

6

Acrylcolor
SISTEMA
BERRIA

KOLOREA
GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253

Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI

Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

Guaixe erakusleiho lehiaketa

Garagarrileko saritua:
Loly Asensio

Eskerrik beroenak
erakuslehio lehiaketan
parte hartu duzuenei
eta Beleixeguaixe
txartelarekin gurekin
elkarlanean zaudeten
Sakanako komertzio
guztiei!!!

Lehiaketa
urrian
Itzuliko da!!!

Saria: Komertzioek emandako produktuez osatutako lotea

>>11 galdera

Fran Perez
Soinu teknikaria. Itxura estudioa
Testua: Erkuden Ruiz Barroso

1. Soinu-teknikaria zara. Nola hasi zinen?
Susundegin lanean nengoela, lagun batekin bozgorailu batzuk erostea erabaki genuen eta txosnetan alokatzen hasi ginen, duela urte asko. Sevillara joan nintzen sistemen diseinua ikastaroa egitera, Maná taldeko teknikariarekin. Izan ere, ez dago soinu-teknikaria izateko Unibertsitate titulu propiorik; soinu-teknikari izateko kalean eta festetako gaujaietan ikasten da. Zuzenekoak egiten hasi nintzen. Skalariak taldeak deitu zidan soinu-teknikari izateko eta haiekin lanean hasi nintzen. Enpresa utzi nuen eta azkenean nire profesioa izatea lortu dut.
2. Musika talde askoren soinu teknikaria izan zara, beraz.
Skalariak taldearekin hasi eta Gati-llozo, Lendakari muertos, Kerobia, Segismundo, Los txikos del maíz, Stupenda Jones, Hesianekin ere lan egin dut... Ahoz ahokoak funtzionatzen du.
3. Zein da soinu-teknikariaren lana?
Lanpostuaren arabera. Soinu enpresa bateko soinu-teknikaria bazara denetarik egiten duzu: kamioia gidatu, muntaia egin, desmuntatu eta azken momentura arte han egon. Musika talde baten teknika-ria bazara, taldearekin joaten zara, ezagutzen duzu abestien zerrenda, zein soinu daukan musika tresna bakoitzak, probak egin behar dituzu eta dena azkarragoa da.
4. Itxura grabazio estudioa ireki duzu Altsasun. Beharra dago?
Kaotiko taldeko Fontak eta biok estudio hau ireki dugu ikusi dugu-lako hutsune bat zegoela lehe-



Elkarrizketa osorik www.guaixe.net-en.

- nengo disko bat grabatu nahi duten taldeen artean. Izan ere, edo diru gutxi gastatzen dute, baina ez dira guztiz pozik gelditzen kalitatearen aldetik, edo diru kalitate handiko estudioetara joaten zara Aritz Aregui, Angel Katarain edo Kakirekin, eta diru asko gastatzen duzu. Erdiko hutsune hori bete nahi izan dugu; bitarteko asko erabili gabe. Ezagutzen gaituen jendeak jakin dezala grabatu nahi izanez gero hemen gaudela. Estudioa Fortxo kafetegia- ren ondoan dago, Altsasun.
5. Hasiberriei diskoa grabatzeko aukera ematen diezue?
Disko bat grabatzeko erdiko auke- ra bat ematen diegu, baina mer- katuan ongi entzuten dena. Zer- bait aurkeztigarria taldearen aur- pegia emateko orduan.
6. Zuzenetako soinu-teknikaria zara, orain estudioarekin hasi zara. Desberdintasunak daude?
Askok. Horregatik elkartu naiz Fon- tarekin. Berak ekoizpenaren alde- tik asko daki, Kaotikoren disko asko ekoitzi dituelako, eta abestiak elkar- tzeko erraztasuna dauka, zer gel- ditzeden ongi, zer gaizki... eta nik ezaguera teknikoak ditut; elkartu gara eta estudio teknikaria izan- go litzatekeena lortu dugu.
7. Diskoak grabatu dituzue jada?
Estudioa ireki baino lehen Stupen- da Jones taldearen azken disko- ren, Hiruren, grabazioan eta ekoiz- penean lagundu nuen. Gero D Tox Gasteizko musika taldea sartu zen eta grabazioa eta ekoizpena egin genien ere.

8. Itxuran diskoa grabatu nahi duten taldeei zer eskatzen diezue?
Ez diegu ezer eskatzen, beraiei egokitzen gara. Eta egon daitezke- en arazoak konpontzen laguntzen diegu. Talde ezagunak ezagutzeko aukera ematen diegu ere. Eta pro- posatzen diegu zer bait kentzeko edo beste hau jartzeko; ekoizpen lan hori ere eskaini nahi diegu.
9. Nola dago musikaren egoera Euskal Herrian?
Zaila. Zuzenean jotzeko taldeen cache-a asko jaitsi da. Estudioan, aldiz, pozik egon gaitezke. Dena dela diskoak ez dira lehen bezala saltzen eta interneten deskarga asko daude. Estudio-teknikari hoberenak Euskal Herrian daude.
10. Estudio bat sortzea, sarearen mehatxua izanda, ez da arriskutsua?
Gure ideia hori da. Taldeek nahia- go dute grabazioan gutxiago gas- tatu eta eurek internet bidez doan banatzen dituzte diskoak. Jendeak jaisten badu, kalitate onean egite- ko. Mp3 formatuak belarriak zikin- tzen ditu eta jendea mp3-ra ohitu da, kalitate txikian, eta azkenean ez dakizu zer ari zaren entzuten.
11. Etorkizunean, beraz, Interneterako grabatuko dituzue diskoak?
Ez dut uste. Diskoaren portada iza- tea, taldekideen eskerrak, letrak... beharrezkoa zaigu, agian horrekin jaio garelako. Baxerriarekin elkar- lanean ari gara eta estudioan gra- batzen duten taldeei aukera ema- ten diegu berak azala, gaitetaren eta kontrazalaren irudiak egiteko.

Ziberespazioan zure ekitaldiaren berri emateko...

Guaixe
KOMUNIKAZIOA
diseinua & inprimatzea

itb Irurtzun
telebistaren
aurkezpena

1., 2. eta 3. s...

Ondoren, a...

Uztailak 20:

Iratxo Eikarlean